IZATEKO, EKIN. EKIN, IRAUTEKO

INBERTSIO HANDIEN TESTUINGURUAN, ESKUBIDEAK BABESTEKO ETA SUSTATZEKO ESPERIENTZIAK OINARRIETATIK ERAIKIAK

pbi

Izateko, ekin.
Ekin, irauteko

Inbertsio handien testuinguruan, eskubideak babesteko eta sustatzeko esperientziak, oinarrietatik eraikiak

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Brigadas Internacionales de Paz

Egileak: Brigadas Internacionales de Paz
Euskerazko itzulpena: Bidera
Edizioa eta banaketa: Brigadas Internacionales de Paz
Diseinua eta Maketazioa: porENDE estudio gráfico
Azaleko irudia: La Puya. PBI Guatemala
Lege Gordailua: DL: SA 111-2016

Brigadas Internacionales de Paz

Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) gobernuz kanpoko erakundea da, nazioartekoa eta 35 urte baino gehiagoko eskarmentua duena giza eskubideak babesten eta gatazketako eta gatazken ondoko bake-eremuak sortzen.

Gaur egun, PBIk taldeak dauzka lekuan bertan Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen, Mexikon, Kenian, Indonesian eta Nepalen.

6
Sarrera

10
Kolonbia
Autobabeserako eta komunitate-erresistentziarako mekanismoen esperientziak

20
Guatemala
Meatze-proiektu baten aurrean, eskubideak babesteko estrategia integrala: La Puyako kasua

28
Mexiko
Babes-estrategiak Tehuantepeceko Istmoan parke eolikoak egin nahi dituzten testuinguru batean

40
Honduras
Lurraren jabetzarako eta ingurumenerako eskubidearen defentsa arrisku larrian

48
Lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren emakume defendatzaileak

52
Ondorioak eta gomendioak

Sarrera

GIZA ESKUBIDEEN defendatzaileak ezinbestekoak dira enpresen eta giza eskubideen alorrean. Inork ez bezalako ikuspegia dute eskala handiko proiektu ekonomikoen testuinguruan giza eskubideak babesteko eta errespetarazteko orduan. Sarritan, ongi ezagutzen dituzte tokiko egoera eta testuingurua, eta argi eta garbi ulertzen dituzte komunitateen beharrak. Defendatzaileek zeregin funtsezkoa betetzen dute tokiko herritarren eskubideak defendatzen eta arriskuez ohartarazten. Era berean, funtsezkoak dira plano nazionalean eta nazioartekoan sentsibilizatzeko, lehertzeko zortian den gatazka bortitz bati buruz ohartarazteko eta, bortizkeriak gertatzen direnean, informazioa biltzeko, salatzeko eta zabaltzeko.

Hala ere, Nazioarteko Bake Brigaden (PBI) tokian tokiko proiektuek gero eta laguntza- eta babes-eskaera gehiago jasotzen dituzte inbertsio handien testuinguruan eskubideak defendatzen eta sustatzen dituzten pertsonen, erakundeen eta komunitateen aldetik. Askotan eta askotan, defendatzaile horiek ez dute bermaturik izaten beren segurtasuna; gainera, beren ospea zikindu egin nahi izaten diete difamazio kanpainekin eta lege bidezko jazarpenekin; izan ere, horrela, haien aurkariek beren lana trabatzen dute, hau da, eskubideen jabe direnak eta biktimak babesteko lana. Defendatzaileen egoerarako Nazio Batuen Kontalariak behin baino gehiagotan ohartarazi du defendatzaileen taldea talderik zaurgarrienetakoa dela. Global Witnessen arabera, gutxienez 908 defendatzaile hil dituzte 2002tik, lurren eta baliabide naturalen ustiapenerako lehiaren testuinguruan. Front Line Defenders erakundearen urteroko txostenean, arriskurik handiena duen defendatzaileen taldea identifikatu zuten: ingurumenaren, lurra izateko eskubidearen eta herri indigenen alde aritzen direnak; horrez gain, emakume defendatzaileen inguruan duten kezka ere azaltzen da, izan ere, horien zereginek dakarten arriskuaz gain, genero bortizkeria, jazarpena eta estigmatizazioa jasateko arriskua baitute.[1]

Lege-sistema kontra izaten dute maiz, eta PBIk ikusi du lurraren, lurraldearen eta baliabide naturalen defentsan aritzen direnek kriminalizazio-prozesu gero eta gogorragoak jasaten dituztela, difamazio kanpainak bitarte, funtsik gabeko legezko akusazioen bidez, edo ikerketa eta prozesu judizialak berariaz luzatuz eta legezko prozedurak ez errespetatuta. Askotan, defendatzaileek kargu faltsuei eta legearen aurreko tratu arbitrarioari aurre egin behar izaten diete; aldi berean, defendatzaileen kontrako erasoen ikerketak zigorgabetasunaren lainopean lausotzen dira. Maiz, estatuek ematen dituzten babes-neurriak ez daude egokituta gai horien inguruan lanean diharduten defendatzaileentzat, edo ez dira behar bezala aplikatzen. Horren ondorioz, komunitate eta banako erasanek indar gutxiago dute beren eskubideak aldarrikatzeko, eta, hala, bortizkeria gehiago jasateko arriskua handitu egiten da. Ezinbestekoa da Estatuek, erakunde

1 Front Line Defenders: *Informe Anual de 2016,* 2016ko urtarrila.

multilateralek eta enpresek giza eskubideen defendatzaileen lana errespetatu eta babestea.

Argitalpen honetan, gure kezkak partekatu nahi ditugu, ikusita nola dauden giza eskubideak arlo horretan defendatzen eta sustatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta komunitateak. Horretarako, kasuak aztertu eta elkarrizketak egin dizkiegu Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen eta Mexikon PBIk lagun egiten dieten defendatzaileei. Erakutsi dugu inbertsio handien testuinguruan giza eskubideak eta segurtasuna galtzeko arriskuan daudela defendatzaileak, baina

era berean erakutsi dugu lan horri esker lorpenak ere izan direla; bestalde, PBIk ikuskatutako EBren misioetan eta ordezkaritzetan izandako jardunbide onak ere ageri dira. Artikuluetan orobat nabarmentzen da askotariko inbertsio-proiektuen kalteak jasan dituzten pertsonek, erakundeek eta komunitateek zer-nolako tresnak sortu dituzten oinarrietatik giza eskubideak babestu eta sustatzeko.

Azkenik, zenbait gomendio egin zaizkio nazioarteko komunitateari geure lanean eta eskarmentuan oinarrituta, jakiteko nola prebenitu daitezkeen prozesu bortitzak eta nola erantzuten ahal den defendatzaileen giza eskubideak eta segurtasuna mehatxatuta daudenean Nazio Natuen (NBE), Europako Batasunaren (EB) eta Giza Eskubideen Amerikarteko Sistemaren (SIDH) babes-tresnak eta -mekanismoak erabilita.

Colombian

Autobabeserako eta komunitate-erresistentziarako mekanismoen esperientziak Kolonbian

Gizarte eta ingurumen gatazkak Kolonbian
Iturria: *www.ejatlas.org* Ingurumen justizia Atlasa.
Mapak herrialdeko gizarte eta ingurumen gatazka batzuk bakarrik aurkezten ditu.

LURRALDEAREN KONTROLA izan da Kolonbia joan den 50 urtean murgilduta daukan gatazka armatuaren funtsezko kausetako bat. Pobrezia handia, lurraren kontzentrazioa eta baldintza ekonomiko, militar eta politikoak medio, arrisku larrian dira Kolonbian giza eskubideen errespetu osoa eskatzen duten pertsona, erakunde eta komunitateak.

Bereziki zaurgarriak dira bortizki lapurtutako lurrak itzultzeko eskatzen duten kolektiboak eta beren lurretan eta lurraldeetan gelditzearen alde borrokatzen diren nekazariak, indigenak eta afrikarren ondorengoak; izan ere, haien lurraldeek inbertsio ekonomiko handiak erakartzen dituzte.

Global Witness GKEaren txosten batek dakarrenez[2], mundu osoan ingurumena defendatzen dutenen artean, Kolonbia izan da bigarren arriskutsuena 2014an, 25 hilketa izan baitira[3]. Horrez gain, Somos Defensores programak, aldizka ateratzen dituen txostenetan, erakusten du Kolonbian etengabe igo dela giza eskubideak defendatzen dituztenen aurkako erasoak eta hilketak: 2009ko urtarrilaren eta 2015eko irailaren artean 368 hilketa[4] eta 2.513 eraso gertatu ziren. Bestalde, kezkagarria da zenbat ugaritu diren emakume defendatzaileen eta komunitateko emakume liderren kontrako erasoak; 2015ko uztailetik irailera bitarteko hiruhilekoan izan diren erasoetatik eta hilketetatik %61.[5]

Aipatu beharra dago mehatxu gehien jasaten duten defendatzaileetako askori babes fisikoa ematen diela Estatuak, Babeserako Unitate Nazionalaren (UNP) bitartez, Barne Ministeriora atxikia bera. Hala ere, gizarte-mugimenduak behin eta berriz adierazi du neurri fisikoak neurri politikoekin batera ez badatoz funtsezko eskubideak defendatzea arrisku handiko jarduera izango dela aurrerantzean ere Kolonbian[6]. Hauxe aitortu zuen Todd Howlandek, NBEk Kolonbian duen Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoko ordezkariak, 2015. urtearen amaiera aldera: «Kolonbiako Estatuan nahiz eta askotariko ordezkariek aitortu duten zer-nolako garrantzia duten defendatzaileek gizarte demokratiko eta igualitario bat eraikitzeko, [...] ikusita hilketa-kopuru handia izan dela eta beste eraso larri batzuk izan direla, argi dago ez dela nahikoa izan Estatuak haien bizitzeko eskubidea, segurtasun pertsonala eta lanerako askatasuna efektiboki bermatzeko egin duen ahalegina».[7]

2 Global Witness: *Cuantos Mas?,* 2015eko apirilaren 20a.

3 El Espectador: *Defender el medio ambiente, un riesgo en Colombia,* 2015eko apirilaren 20a.

4 Somos Defensores programa: *Informe anual 2010, agresiones a defensores de ddhh*, 2011ko otsailaren 2a; Somos Defensores programa: *Claroscuro, Informe anual 2011,* 2012ko otsailaren 2a; Programa Somos Defensores: *El Efecto Placebo,* Informe anual 2012, 2013ko otsaila; Programa Somos Defensores: *Informe Siaddhh 2013: D de defensa,* 2014ko otsailaren 21a; *P*rograma Somos Defensores: *Claroscuro, Informe anual 2014,* 2015eko otsailaren 18a; Programa Somos Defensores: *Los Nadies*. Informe Enero-Junio 2015, 2015eko abuztuaren 18a; OIDHACO: *178 defensores y defensoras de derechos humanos fueron agredidos o agredidas entre julio y septiembre 2015.*

5 Programa Somos Defensores: *Trabajo por la Paz = Amenazado (a),* 2015eko urriaren 23a.

6 Somos Defensores programa: *Los Nadies. Informe Enero-Junio 2015,* 2015eko abuztua.

7 OACNUDH: *En 2015, se superó el promedio de homicidios de Defensores registrado en los últimos 20 años,* 2015eko azaroaren 19a.

Somos Defensores programaren arabera, 2014an hildako 55 pertsonetatik %60k (31 lagunek) mehatxuak salatuak zituzten lehenagotik. Eta 2015eko urtarriletik ekainera bitartean hildako 34 defendatzaileetatik 13k ere (%38) mehatxuak salatuak zituzten[8].

Babes- eta autobabes-neurriak landa-eremuko komunitateetan: Eremu Humanitarioak

Kolonbian, sei milioi pertsona desplazatu dituzte herrialdearen barnean[9]. Oraindik gatazkan zirela, bortizkeriagatik desplazatutako zenbait komunitatek beren lurretara itzultzea erabaki zuten, eta, Estatuak babesik ematen ez zienez, komunitateek berek sortu zituzten autobabeserako mekanismoak, beren antzinako lurretara itzuli eta bertan gelditzeko.

Landa-eremuan ezarritako mekanismoetako bat Eremu Humanitarioak izan dira; autobabeserako eredu horretan, nazioarteko eskubide humanitarioaren araudiari jarraitzen diote, eta, zehazki, bizitzeko eskubidearenari eta barne-gatazka armatuen esparruan zibilak eta borrokalariak desberdintzeko eta gizarte zibila babesteko printzipioari. Kolonbiako legediari ere heltzen diote, besteren artean 22. artikuluan esaten baita «bakea eskubide bat» dela. Gainera, Giza Eskubideen Amerikarteko Auzitegiak (CoIDH) babestu egin du Chocoko Uraba landa-eremuan Eremu Humanitarioak sortzea, «biztanleria zibila eremuko talde armatuen ekintzetatik babesteko mekanismo positiboa» delako[10]. Hasieran, Eremu Humanitarioei esker, jendea era kolektiboan itzuli ahal izan zen, eta lurraldeak fisikoki definitu zituzten sareekin eta pankartekin, adierazteko toki haiek esklusiboki herritarrenak zirela eta debekatuta zegoela legez zein legez kanpo armatutako ekintzaileak sartzea; beren bizitzaren, eskubideen eta lurraldearen alde borrokatzen diren komunitateak babesteko egokia zelakoan egin zuten hori[11].

8 Ibid.

9 Semana: Colombia *conserva el deshonroso título del segundo país con más desplazados,* 2015eko ekainak 6.

10 *«Medidas Provisionales respecto de la República de Colombia. Caso de las comunidades del Jiguamiandó y del Curbaradó»,* Giza Eskubideen Amerikarteko Auzitegiaren Erabakia, 2005eko martxoaren 15ekoa.

11 Danilo Rueda /Justizia eta Bakea Elizarteko Batzordea eta Catherine Bouley /Juristen Kolonbiar Batzordea: *Zonas Humanitarias y Zonas de Biodiversidad: Espacios de dignidad para la población desplazada en Colombia*, Bogotá 2009.

Buenaventurako Calle Puente Nayero Gune Humanitarioa. Argazkia: PBI

Kolonbiako lehen Eremu Humanitarioa Cacaricako arroan jarri zen

Cacaricako komunitateak eta Cacaricaren Autodeterminaziorako, Bizitzarako eta Duintasunerako Komunitateen (laburtzapenez, Cavida izenekoa) antolamenduko kideak eredu dira Kolonbian erresistentzia komunitarioa egiten jakin dutelako; hala, muturreko egoerak gainditu eta estandarrak finkatu dituzte bortizkeriak eta esplotazioak jotako lurralde batean, zeina baliabide naturaletan eta biodibertsitatean munduko aberatsenetan den. Cacarican Kolonbiako lehen Eremu Humanitarioa eratu zen, eta PBIk bide eta borroka horretan haiei urte askoan lagun egiteko ohorea izan du.

Cacaricako eta Atrato Behereko beste leku batzuetako komunitateak Chocoko departamendutik desplazatu zituztenean, 1997ko otsailean, *Genesi Operazioa* izeneko operazio militar eta paramilitar hartan, Urabako eskualdera jo behar izan zuten. Bortxazko desplazamenduekin batera, Cacaricako herritarrek blokeo ekonomikoak jasan zituzten; base paramilitar bat ezarri zieten lurraldean, eta 82 pertsona beren komunitateetatik desagerrarazi eta hil egin zituzten[12].

Gainera, bai desplazatu zituztenean bai lurraldearen inbasio paramilitar eta militarrean eta bai herritarrak itzuli zirenetik, bortizkeriak jotako lurralde eta lur

12 PBI, Cacarica: *PBI markatuta utzi zuen lagun-egitea,* 2014ko abenduaren 1a.

Cacaricako Eremu Humanitarioa. Argazkia: PBI

haiek[13] esplotatzen aritu dira zenbait enpresa; besteren artean, Maderas de Darien eta Multifruits CIA SA (Del Monteren eskumendekoa). Justizia eta Bakea Elizarteko Batzordeak salatzen duenez (CIJP Comision Intereclesial Justicia y Paz) —PBIk laguntzen duen erakundea bera—, 1997an desplazatu zituztenetik, Cavidako kide diren komunitateak eta beren familiako buru diren emakume batzuk (Clamores elkartekoak) Turbon daude oraindik desplazatuta, eta jazarpen judizialak bezala jasan dituzte mehatxuak, jazartzeak, erbesteratzeak eta desplazatze behartuak hiru alditan[14]. CIJP biktimen ordezkari jardun da nola Kolonbian nola nazioartean, eta zenbait eraso jasan ditu hark ere. 2015eko bukaeran, berriz ere salaketak izan ziren, zenbait talde neoparamilitarren presentzia gogorra izan delako Cacarican eta inguruko lurraldeetan[15].

1999an, lehenengo esplorazio-misioa egin ahal izan zen lurraldera itzultzeko asmoz: liderren misioa izan zen; Kolonbiako eta nazioarteko erakundeek lagunduta, Cacaricarantz atera ziren, jakin gabe paramilitarrak lurraldean ote zeuden edo

13 Op. cit. Danilo Rueda, Catherine Bouley: *Zonas Humanitarias y Zonas de Biodiversidad: Espacios de dignidad para la población desplazada en Colombia.*

14 Cijp: *26 años de condena al General (r) Rito Alejo del Río,* 2012ko abuztuaren 24a; Cijp: *Intimidan a Marco Velásquez, integrante de CAVIDA,* 2014ko urtarrilaren 7a; Cijp: *Paramilitares operan a menos de 100 metros de efectivos regulares,* 2014ko urtarrilaren 13a; Cijp: *Advertencia contra la vida del defensor de nuestra organización Danilo Rueda,* 2014ko urtarrilaren 16a.

15 Cijp: *Cerco paramilitar a comunidades negras e indígenas,* 2015eko azaroaren 3a; CONPAZ: *Carta Publica: En riesgo Cese Unilateral,* 2015eko azaroaren 3a; Cijp: *Paramilitares se asientan en Cacarica sin reacción de las Fuerzas Armadas,* 2015eko urriaren 5a.

desplazatu aurretik bertan gelditutako komunitaterik ba ote zen[16]. Hala, orain Nueva Vida izeneko Eremu Humanitarioa den horretara heldu ziren. Desplazatu aurretik, familiak finka urrunduetan bizi ziren, baina herritarrek lurraldean segurtasunik ez zutenez eta estatuak babes-bermerik ematen ez zuenez, era kolektiboan itzultzea erabaki zuten.[17]

2013ko abenduaren 26an, Amerikarteko Auzitegiak azken epaia eman zuen Cacaricako kasuaz, eta aho batez adierazi zuen[18] Kolonbiako Estatua «erantzulea» dela «nazioartean» segurtasun pertsonalaren eta bortxara ez desplazatzearen eskubideak bermatzeko betebeharra bete ez duelako, Cacarica ibaiko komunitateko kideen kaltean. Gainera, Auzitegiak kondenatu egin zuen Estatua, laguntza humanitarioa emateko erantzukizuna ez betetzeagatik; izan ere, Cacaricako ibaiko biztanleak desplazatuta egon ziren lau urteetan, itzulera segururik bermatu ez eta, gainera, ez zien laguntza humanitariorik eman bitarte horretan[19]. Horretaz gain, azken buruan, Auzitegiak dio Cacarica ibaiaren arroko komunitateen jabetza kolektiboko lurretan usurpatzaileek egindako ustiapenak «*zilegitasunik gabe eginda daudela eta agintariek jabetza kolektiborako eskubidea babesik gabe utzi zutela, jakinaren gainean egonda bertara egindako zenbait bisitatan legez kanpoko ustiapena gertatzen ari zela*».[20]

Epaia, sinbolikoki eta moralki, garrantzi izugarrikoa da; lehen aldia da CoIDHk estatu bat kondenatzen duela afrikar etorkiko komunitateak desplazatzeagatik.

Cacaricako esperientziaren ondoren, Urabako eskualdean ere beste Eremu Humanitario asko sortu ziren: PBIk lagundu zituenen artean daude Eremu Humanitario eta Biodibertsitatezko batzuk, Curbaradoko eta Jiguamiandoko ibaien arroetan sortuak; lurralde horiek kalteak jasan dituzte besteren artean palmondoaren eta bananondoaren monolaborantzagatik, zuraren ustiapenagatik eta abeltzantza estentsiboagatik.

Mende honen hasierara arte, Curbaradoko eta Jiguamiandoko ibaien arroak munduko ingurumen-erreserbarik handienetakotzat hartzen ziren. Atrato Behereko lurrak eta, batez ere, Atrato eta Murindo ibaiek osatzen duten hezegune handiak ere izugarri emankorrak dira. Gaur egun, ordea, lurralde horren zatirik handiena eskala handiko monolaborantzarako, abeltzantza estentsiborako eta zuraren ustiapen masiborako erabiltzen da; hor, ez dago tokirik faunarako, florarako eta are gutxiago antzinako herritarrentzako.

16 Op. cit. PBI, El acompañamiento que marcó a PBI.

17 Ibid.

18 Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanoa: *Sentencia Caso de las Comunidades afrodescendientes desplazadas de la cuenca del rio Cacarica,* 2013ko abendua.

19 Ibid.

20 Ibid.

Erresistentzia hirigunean: Espazio Humanitarioaren sorrera Buenaventura hirian

Espazio Humanitarioa, 2014ko apirilean Buenaventura hirian sortua, erresistentzian diren prozesu komunitarioen erakusgarri ona da; komunitate horiek neutral agertzen dute beren burua, hirietan testuinguru politiko eta sozial oso bortitzak daudelarik. Lehen aldia da, Kolonbian horrelako esperientzia bat gertatzen dena; gorago aipatutako Eremu Humanitarioen esperientzietatik sortua da, eta neutraltasuna da haien oinarria; hala, gatazka armatuetan zibilen eta borrokalarien artean bereizteko printzipioaren eskubidean bermatzen dira. Buenaventuran gatazka armaturik berez ez badago ere, interes politiko eta ekonomiko indartsuak daude, eta komunitatearen funtsezko eskubideak kolokan daude.

Bortizkeria-giroa eta giza eskubideen bortxa larriak dira Buenaventura portu-hirian, Kolonbiako hego-mendebaldean; hori dela eta, nazioarteko zenbait erakundek erne ibiltzeko adierazi dute azken bi urteetan. [21] Zenbait txostenetan, hirian dauden baldintza sozioekonomiko ezin txarragoak eta bortizkeria-maila handia dokumentatzen aritu dira Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa (ACNUR), Nazio Batuen Goi Komisarioak Giza Eskubideetarako Kolonbian duen Bulegoa, Human Rights Watch eta beste zenbait. Bortizkeriari dagokionez, gehienbat legez kanpoko talde armatuek darabilte: jendea desplazatzea, desagerraraztea, tortura eta gorputzak zatikatzea «casa de pique» deritzaten etxeetan. Zorigaitzez, estatuak ez du aski egin orain arte bortizkeria hori geldiarazteko[22]. Hori ikusita, Puente Nayero deritzan alderdiko biztanleek, itsasbazterrean dagoen La Playita de la Comuna 4 auzoan, Espazio Humanitario bat ezartzeari ekin zioten, Justizia eta Bakea Batzordearen laguntzarekin, PBIk lagun egiten duen erakundea bera.

Buenaventura izeneko hiria

Kokapen geografikoagatik, Buenaventura nazioarteko inportaziorako eta esportaziorako puntu estrategikoa da; batez ere, Asiarekin eta Estatu Batuekin. Portu horretatik, Kolonbiako kanpo merkataritzaren %50 baino gehiago ibiltzen da, eta kopuru hori igo egingo da Pazifikoko Aliantzarekin, Mexikok, Txilek, Peruk eta Kolonbiak sinatutako itun multilateralarekin.

Proiektu bat baino gehiago dago martxan Buenaventura portu-hiri bihurtu eta atzerriko inbertsioa erakartzeko.
Zenbait auzo ezagunetan, itsabazterrean, «itsasbehereko auzo» izenekoetan, udal-

21 HRW: *La crisis en Buenaventura, 2014ko martxoa, NRC eta Acnur: Buenaventura, Colombia: Realidades Brutales, 2014ko iraila, OCHA: Desplazamiento Masivo Intraurbano y Limitaciones a la Movilidad, 2013ko azaroa, HRW: Nuevos asesinatos y desapariciones en Buenaventura,* 2015eko martxoa.

22 Ibid.

gobernuak itsas hesi bat eta turismogune handi bat egitea proposatu du, orobat Buenaventurako Edukiontzien Terminala handitzea eta Jarduera Ekonomikoetarako Zentro bat eraikitzea[23]. Hala ere, alde handia dago proiektu horien eta herri-auzoetako jendearen antzinako bizimoduaren artean.

Megaproiektu horiek ezartzeko, herritarrek bizilekuz aldatu behar lukete; horrek esan nahi du itsasotik barnealdera edo Buenaventurako landa-eremuetara desplazatu beharko luketela.

Kolonbiaren Pazifikoko portu nagusia eta Latinoamerikako bigarren inportanteena bada ere, Buenaventurako 500.000 biztanleetatik gutxi gorabehera %80 (gehienak afrikarren ondorengoak) pobreak dira, eta %63k ez dute lan egiteko biderik[24]. Garapenerako Nazio Batuen Programak nabarmentzen duenez, «Buenaventura da Kolonbiako pobreziaren eta atzerapen sozialaren adibiderik tamalgarriena». Etsigarriak dira osasun-, hezkuntza-, enplegu- eta dirusarrera-adierazleak, zer dagoen ez dakien edozein behatzailerentzat, udalerriko pobrezia borrokatzeko

Buenaventurako Calle Puente Nayero Gune Humanitarioa. Argazkia: PBI

23 Cinep: *Noche y Niebla (95. or.),* 2013ko abendua.
24 Cijp: *Herederos de la esclavitud en Buenaventura,* 2014ko martxoaren 22a.



Cacaricako desplazamendu behartua oroitzen duen monumentua. Argazkia: PBI

politikak porrot egiten ikusi duenarentzat eta, are gehiago, egunez egun fenomeno horren ondorioak pairatzen dituztenentzat»[25].

Inbertsio ekonomiko handiengatik bortizkeria, babes-falta eta desplazatzeko etengabeko mehatxua dagoela ikusita, Nayero (edo San Frantzisko) kale historikoko familiek, CIJPen laguntzarekin, «Nayero Zubiko Espazio Humanitario» izendapena hartu zuten, 2014ko apirilaren 13an, eta, hala, prozesu berri eta itxaropentsu bat hasi dute hirigune betean, espazio libre bat eraikitzen saiatzeko, legez kanpoko ekintzaile armaturik izango ez duena.

Puente Nayeroko komunitateak familia guztien zentsua egitea pentsatu zuen (302 atera ziren), eta espazioak mugatzea, bortizkeriaren alternatibak eraikitzen joateko eta beldurra hausten saiatzeko, horrela gero ahaldundu eta talde neoparamilitarretatik autobabesteko[26].

Nabarmentzekoa da Espazio Humanitarioa sortu zenetik, mehatxuek hortxe irauten badute ere, komunitateak lortu duela komunitate-bizitzaren zati handi bat berreskuratzea: haurrak kalean jolasten dira arratsaldeetan, pertsonak zatikatzen zituzten «casa de pique» desmuntatu egin dute eta jendeak itxaropena du

25 Pnud: *¿Cómo romper las trampas de pobreza en Buenaventura? Propuestas desde las comunidades y las instituciones,* 2013ko maiatza.

26 Cijp: *No encuentran a joven descuartizada,* 2015eko urtarrilaren 2a.

etorkizunera begira, bizi-proiektua berreskuratzen hasi baitira.
Espazio Humanitarioa instalatu eta egun batzuetara, CIJPek kautelazko neurriak eskatu zizkion CIDH Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordeari, Puente Nayero kalean bizi diren 302 familia afrokolonbiarren segurtasuna babesteko. 2014ko irailaren 15ean, ikusita zer-nolako gertaerak ari ziren pasatzen —gertaera larriak, arriskua, larrialdia eta erreparaziorako ezintasuna—, CIDHek neurriak hartzeko eskatu zion Kolonbiako Gobernuari, La Playita auzoko San Frantzisko kalean bizi diren eta Espazio Humanitarioa osatzen duten 302 familia afrokolonbiarren bizitza eta segurtasun pertsonala babesteko.

Guatemala

Elkarrekin aurrera goaz

Meatze-proiektu batean eskubideak babesteko estrategia integrala: La Puyako kasua

Gizarte eta ingurumen gatazkak Guatemalan
Iturria: *www.ejatlas.org* Ingurumen justizia Atlasa.
Mapak herrialdeko gizarte eta ingurumen gatazka batzuk bakarrik aurkezten ditu.

GUATEMALAN eta Latinoamerikako beste zenbait herrialdetan ugaritzen ari dira gatazkak ondasun naturalak esplotatzeaz arduratzen diren enpresen (batzuk nazionalak eta beste batzuk nazioartekoak) eta lurraldean aspalditik bizi diren komunitateen artean; hala, komunitate horiek beren funtsezko eskubideak, kultura eta bizi ikuskera mehatxatuta sentitzen dituzte. Sarritan, zakartu egiten dira gatazka horiek: bai estatuko ekintzaileek bai estatuz gaindikoek etengabe mehatxatzen dituzte, etengabe beldurrarazten eta erasotzen lurra eta lurraldea defendatzen dituzten pertsona eta erakundeak.

Guatemalan giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoen artean, hain zuzen, lurra eta lurraldea defendatzen dituztenei erasotzen diete batez ere. Guatemalan Giza Eskubideen Defendatzaileen babeserako Unitateak 2015eko lehen seihilekoan erregistraturiko 337 erasoetatik 239 eskubide ekonomikoen, sozialen, kulturalen eta ingurumenekoen alde zihardutenen kontra eginak izan ziren; denak ere estu lotuta ondasun naturalen ustiapenerako proiektuetan sortutako gatazkekin.

Proiektu horietako bat El Tambor Progreso II Deriva urre-meategikoa da; Guatemala Hiritik —herrialdeko hiriburua— kilometro gutxira dago meategi hori. Gaur egun, Kappes, Cassiday & Associates Ipar Amerikako enpresaren jabetzakoa da, eta tokiko subsidiarioen bitartez jarduten du, hots, Exploraciones Mineras de Guatemala SA eta Servicios Mineros de Centro America enpresen bitartez.

2010etik, erresistentzia-jarduera baketsuak egin dituzte San Jose del Golfo eta San Pedro Ayampuc udalerri kaltedunetako herritarrek, proiektuarekin konforme ez daudela erakusteko. Ordutik, obra egin aurretik kontsulta libre eta informatu bat egiteko eskatzen ari da erresistentzia hori, eta, aldi berean ingurumen-eraginaren ikerketa independente bat; izan ere, enpresak egindakoa oso zalantzagarritzat jo dute. Herritarrak kezkatuta daude eskura dagoen ur gutxia meategiek kutsa dezaketelako, bertako fauna hil eta ekosistema honda dezaketelako.

> «Besteren artean bizitzeko eskubidea urratu dute, ura izateko eskubidea eta osasuna izateko eskubidea; gainera, urak lehendik ere berez dakar artseniko maila handia. Bestalde, kontsultarako eskubiderik ere ez da gauzatu; ezta eskubideak defendatzerik ere ez da izan, hura bera kriminalizatu eta indarkeriaz erabat zipriztindu baitute. Funtzionario publikoek ez dute ondo ikusten jendea antolatzea; zalapartaritzat hartzen gaituzte. Estatuak bere erantzukizuna saihestu eta enpresaren ekintzak zuritu ditu».[27]

27 Elkarrizketa Miriam Pixtunekin, La Puyako Erresistentzia Baketsuko kidearekin, Guatemalako PBIk egina, 2015eko abenduan, Guatemalan bertan.

Komunitateek esan dute ez dutela proiektuaren inguruko informazio publikorik jaso aldez aurretik; gainera, enpresak desinformatzeko eta zatikatzeko estrategia erabili omen du:

> «Enpresek egiarik ez esateko ohitura dute lurraldeetara etortzen direnean, eta, aldi berean, udal agintariak oso ahulak dira jendearen eskubideak bermatzeari dagokion esparrua kontrolatzeko orduan. Enpresa iristen denean, zatiketak sorrarazten ditu, eta lehendik zeudenak indartzen. Enpresak estrategikoki familietako jendea kontratatzen du, eta, familia bera meategiaren kontra egonik, zatiketa eragiten du haren barnean, komunitatearen barnean. Baina udalen kooptazioa ere egiten du enpresak, eta, hala, enpresak ez du berak joan beharrik izaten gauzak egitera; tokiko agintariak eta pertsonak erabiltzen ditu meategiaren alde ez dagoen jendea elkarrekin haserrarazteko; horrela, gizarte-ehuna urratzen dute, eta hori lortzen ez dutenean metodo askoz ere oldarkorragoak erabiltzen dituzte».[28]

La Puya Erresistentzia Baketsua lanean hasi zenetik, mehatxuak eta erasoak jasan ditu, baita haien kideetako bat ere hiltzen saiatu dira 2012ko ekainean. Beste batzuei ospea zikindu diete, legezko akusazio funsgabeak eginez Erresistentziaren aldeko konpromisoa dela medio. 2014ko maiatzaren 23an, bortizki desegin zuten Erresistentziak 2012ko martxotik zeraman plantoa —meatze sarrerak blokeatzea—. Handik urtebetera, hura desegin zuteneko urteurrenean, 2014ko maiatzetik egindako eskariak —Errepublikako Presidentearekin Elkarrizketa Mahai bat osatzeak— erantzunik izan ez zuenez, erresistentziak meategietara autoz joateko bidea trabatu zuen. Erresistentziako kideek emandako informazioaren arabera, 2015eko maiatzaren 26an, goizaldera, matxinaden aurkako 200 bat poliziak bortizki desblokeatu zuten bidea, indarkeria gehiegikeriaz erabiliz.

2015eko uztailaren 15ean, Guatemalako Lehen Auzialdi Zibileko Hirugarren Epaitegiak babesa eman zien La Puyako Erresistentzia Baketsuko kideei: meategia eraikitzeko lanak geldiarazteko agindu zion San Pedro Ayampuceko udalerriari, epaia eman eta hamabost egunera auzo-kontsulta egin arte eta eraikitzeko lizentziarik ez zuelako.[29] Uztailaren 23an, San Pedroko udalerriak meategia eraikitzeko lanak geldiaraztea adostu zuen, babesa udal akordio bidez behin betiko konpondu arte.

Hala ere, 2015eko abuztu hasieratik abendura arte, Epaitegiaren ebazpena irmoa ez zenez, epaian oinarrituriko udal akordioa desobedituta, meatzari enpresa berriz ere hasi zen meategira eraikuntzako materialak sartzen kamioietan, Polizia Nazional Zibilaren matxinaden aurkakoek babestuta[30]. Kappes, Cassiday and Associatesen AEBetako zuzendariak esan zuen eraikuntza bukatuta eta meategia martxan zegoela eta, beraz, obra geldiarazteko agindua ez zela egokia.[31]

28 Ibidem.

29 *La Puya en Resistencia. Haciendo frente a la explotación de la tierra.* Guatemalako PBIren buletina, 28 zk., 2012; *La Puya: Logran que se suspenda la licencia minera de una empresa norteamericana.* Prentsa Komunitarioa, 2015/07/15; *Desalojo Violento de La Resistencia Pacífica de La Puya.* Egun honetan kontsultatua 2015/08/13.

30 El Periódico de Guatemala: *Persiste conflictividad en La Puya por proyecto minero,* 2015/08/04.

31 VICE News: *Tensión en Guatemala por el inminente cierre de una mina de oro explotada por EEUU,* 2015/08/05.

La Puyako Erresistentza baketsua, 2014ko maiatzeko blokeoa desegin zenekotik urtebetera. Argazkia: PBI 2015.

«Hizketan aritu gara Energiarako eta Meatzaritzako Ministerioarekin, Ingurumen Ministerioarekin eta Presidentetzarako Idazkaritza Politikoarekin Polizia Nazional Zibilak langileak eta makinaria meatzeetara laguntzeaz, jakinda gortearen epaia hor dagoela eta udalak obrak gelditzeko agindua eman duela, eta esan digute hori ez dagokiela haiei. Beste ministerio batzuei dagokiela, beste jurisdikzio bati dagokiola, ez dela haien eskumenekoa. San Pedro Ayampuceko udalarekin hitz egin genuenean, esan zigun udal akordio-bidez eman zutela eraikuntza geldiarazteko agindua enpresak horretarako lizentziarik ez zuelako».

[...] Auzitegietan, erakutsi genuen enpresak eraikitze-lizentzia faltsutu zuela eta, horregatik, epaileak ikerketa penala abiarazi zuen; Ministerio Publikoari zera eskatu zion, iker dezala legez kanpoko jokaera posible hori, enpresak aipatzen duen akta —lizentzia ematen diotela erakusteko— eta udalarena erabat desberdinak direlako».[32]

Gaur egun, komunitateetako hogeita hamar bat kidek dituzte legezko akusazioak beren aurka; horietako hiru dagoeneko kondenatu dituzte kartzelara, bederatzi urte kommutagarritarako:

[...] Hain zuzen, kriminalizazioa zertan den ederki erakusten duen kasu horietako bat da. Bederatzi pertsonako talde bat zegoen lau deliturengatik inputatuta; horietako bat, lesioengatikoa, baztertuta gelditu zen. Orduan, bederatzi pertsonen prozesua hasi zen, momentu ezberdinetan. Lehenengo hirurek auzi publikoa izan zuten, eta bederatzi urterako zigortu zituzten, kartzela-zigor

32 Miriam Pixtuni egindako elkarrizketako pasartea.

kommutagarriak, mehatxuengatik, bortxakeriagatik eta legez kanpoko atxiloketagatik. Nahiz eta ahozko auzi publikoetan ez zen inolako frogarik agertu kide horiek delitu horiengatik errudun egiteko, eta irregulartasun asko gertatu baziren ere, epaileak zigor-epaiak eman zituen. Bitxia bada ere, kasu horretan bertan, beste kide batzuek beren auziekin jarraitu zuten —espedientea bera da, delituak berak dira, auzi-jartzaileak berak dira, gertaera berak—, eta lau momentutan aurkeztu zituzten. Hiru kide horien ondoren, beste bosten auziak izan ziren. Bost horietako bat, emakumea bera, beste lau kideekin auzipetzeko orduan, adierazi zuten bereiz joan behar zuela, emakumea zelako eta ezin ziolako aihotz bati heldu eta gizon bat jo. Beste lau kideen auziak aurrera egin zuen. Eta absolbitu egin zituzten, hain zuzen ere, frogarik ez zegoelako. Eta epai horretan bertan, demostratu ahal izan zen Palentziako Ministerio Publikoak aktak faltsutu zituela kideak inkriminatzeko. Eta, horregatik, kideak absolbitzen dituen epaian, ikerketa bat abiarazi zen Palentziako Ministerio Publikoaren kontra. Kriminalizazioa badagoela erakusten duen adibide argi bat da. Delitu beragatik akusatutako azken kidea ez zuten auziarekin lotu ere egin».[33]

La Puyako Erresistentzia Baketsuko kideak, akusatutako kideen auziaren emaitzak itxaroten, absolbitu zituzten egunean, Argazkia: PBI 2015.

33 Ibidem.

Borroka baketsurako bideak eta babes-mekanismoak

San Jose del Golfoko eta San Pedro Ayampuceko komunitateek jarduera irudimentsuak eta askotarikoak landu dituzte beren eskubideak sustatzeko eta segurtasuna handitzeko helburuz, behin eta berriz eraso eta beldurrarazi baitituzte eta horren aurka defendatzeko. Planto iraunkor bat hasi zuten, eta, ahalegin handiz, ia lau urte iraun du, komunitateko pertsonen borondatezko txandak antolatuta. Gainera, beti azpimarratu dute beren erresistentziaren izaera baketsua.

Miriam Pixtunek, La Puyako Erresistentzia Baketsuko kideak, lehen eskutik azaldu digu zer-nolako erronkak lortu dituen Erresistentziak eskubideak sustatzeko lanaren inguruan eta egoerari irtenbide baketsuak bilatzeko orduan:

PBI: La Puyako Erresistentzia Baketsuak urteak daramatza urre-meategian erresistentzia egiten eta beren eskubideak bete daitezela eskatzen; segurtasunari dagokionez, lan hori larrutik ordaindu dute erakundeko kideek eta erakundeak berak. Zer-nolako estrategiak erabili dituzte helburuak erdiesteko eta borrokak beren bizitzan izan duen eragina gutxitzeko?

Miriam Pixtun:

Borroka baketsua
Gure erresistentzia askotarikoa da, borroka baketsua da. Hala ere, La Puyan, enpresak eta Guatemalako Estatuak erabiltzen dute bortizkeria, beren segurtasun-aparatuen bitartez. Orduan, gure bizitza babesteko eta defendatzeko neurrietako bat zera da, bizitza babestearen aldeko borroka bortizkeriarik erabili gabe egitea.

Komunitateak artikulatzea
Beste gauza inportante bat komunitateak artikulatzea izan da; geure arteko konfiantza sorraraztea, horrek aukera eman baitigu elkar zaintzeko.

Aliantzak eta lagun egitea
Era berean, oso inportantea izan da PBI eta Protection International nazioarteko laguntzarako erakundeen lagun egitea, eta lagun egiten aritu diren beste zenbait erakunderena. Gu zaintzen gaituzten kanpo-laguntzaileak izatea laguntza handia izan da; izan ere, besteren artean halako segurtasun bat eman digu, enpresek eta zenbait erakunde publikok elkarrekin duten aliantzari aurre egiteko balio izan diguna.

Plano orokorrago batean, itxaropen handia dugu bizitzaren eta giza eskubideen alde aritzen diren nazioarteko beste zenbait erakunderekin ere aliantzak egingo ditugula. Gure eragin politikoari esker, giza eskubideekin konprometituta dauden nazioarteko funtzionarioekin elkar gaitezke, eta hala, lekuko izan daitezke Guatemalako Gobernuarekin ditugun elkarrizketetan; izan ere, funtzionario publikoekin hitz egitean, gerta daiteke funtzionario horiek informazioa desitxuratzea eta elkarrizketetan ari direnen eta jendearen eskubideak betearazten eta babesten dituztenen ospea zapuzteko kanpaina bat eragitea. Horrek hitz egiteko beldurra sorrarazten du. Nazioarteko komunitateak gauza horiei behatzea nahi dugu.

Bide *juridikoa*
Horrez gain, Guatemalako legeak pentsatzen eta aztertzen aritu gara. Saiatu gara esparru juridikoa gehiago ezagutzen, ikusteko zer-nolako mekanismoak dauden, baina batzuetan oso etsigarria da. Ikustea zer proposatzen duten, adibidez, babes-mekanismoen arloan, baina praktikan ez dute betetzen. Oso konplexua da. Adibidez, Polizia Nazional Zibilaren kasuan,

esparru juridikoari dagokionez, herritarren bizia eta segurtasuna babestea da haien zeregina. Alabaina, polizia nazionala La Puyan zer egiten ari den aztertuta, ikusten da segurtasun pribatuaren zereginetan diharduela, eta ez, ordea, jendearen segurtasuna eta osotasuna zaintzen.

Horretaz gain, ikusi dugu legezko ekintzen bitartez faltsutu dela meatzaritza enpresaren eraikitze-lizentzia, baina halako ustelkeria- eta zigorgabetasun-maila dago, poliziaren zerbitzuak enpresari emanak baitaude, meategira sartzen eta eraikitzen segi dezan, agindu judizial eta administratibo bana desobedituta.

Oso konplexua da legea bete dezatela eskatzea; praktikan, funtzionario publikoek berek ere, arauak betetzera behartuta egonik, ez baitituzte betetzen.

Elkarrizketa

Elkarrizketa bilatzea izan da eta oraindik ere hala da garrantzi handiko beste mekanismo bat La Puyako erresistentzian.

La Puyak hiru elkarrizketa-aldi izan ditu. Lehena, 2012ko abenduan, lehen errepresioa gertatu eta berehala. Hala, Elkarrizketarako Sistema Nazionalak zuzendutako elkarrizketa-mahai horietan jarri ginen, baina ezustekoa eraman genuen, ez baitziguten entzun ere egin, eta ez zuten bitartekaritzarik egin; gehiago ematen zuten enpresako eledunak. Elkarrizketa-mahaira aldez aurretik pentsatutako agenda batekin eta jarrera harroarekin iristen ziren, soilik enpresaren ekintzak justifikatzeko. Ez zegoen alderik funtzionarioen hitzaren eta enpresakoenaren artean. Hain zuzen ere, desoreka handi hori zela medio eta funtzionario publikoek gureganako zuten errespetu-falta zela medio, azkenean ezin izan genuen aurrera jo.

Ondoren, 2013ko ekain-uztailetan, beste elkarrizketa-saio bat izan zen. Otto Perez Molina presidenteak bilera batera deitu gintuen presidentearen etxera. Baina bilerara iritsi eta, meatzari enpresaren jabe den Daniel Caps hantxe zegoen, eta gure jarrera izan zen gobernuarekin hitz egin nahi genuela eta ez enpresarekin. Izan ere, gure irizpideetako bat da enpresarekin hitzik ez egitea, gobernuarekin baizik, hura baita geure eskubideak bermatu behar dituen arduraduna; gaur egun arazorik baldin badago, Estatuak bere lana egin ez duelako baita.

Horregatik, presidenteari eskatu genion gu bereiz hartzea, hau da, alde batetik La Puyako Erresistentzia eta gobernua eta, beste alde batetik, enpresa eta gobernua. Onartu egin zuen, eta, bilera horretan, ohorezko lekukoak izan ziren Goi Komisarioa, Giza Eskubideen prokuradoretza eta Baliabide Independenteen Zentroa. Lekukoak hor egonda ere, gobernuak informazioa desitxuratu zuen, eta zuritu egin zuen 2014ko maiatzean errepresioa erabili izana, komunitateek hitz egin nahi ez zutelako argudioa erabilita.

Miriam Pixtum, Resistencia Pacífica de La Puya ekimeneko kidea.

Zorigaitzez, prozesu honetan guztian izan ditugun bileretako askotan, gobernua ordezkatzen zutenak erabakiak hartzeko botererik ez zuten funtzionario publikoak izan dira. Hala, behintzat, elkarrizketa bat osatzeko hirugarren saioan, 2015eko azken aldera, babesaren gaia eta ingurumen-eraginaren azterketarena atera genituenean, funtzionarioek erantzun ziguten ez zutela informaziorik. Hori ikusita, agiriak bide formaletik

entregatu genituen, eta hurrengo bileran, agirietan proposatutakoen gainean legearen eta administrazioaren ikuspegitik zer iritzi zuten galdetuta, esan ziguten ez zutela irakurri.

Azken bileran, salatu genuen euri-sasoian meategiko piletako ur kutsatua komunitate batzuetara isuri zela, eta konforme gelditu ginen zaintze- eta egiaztatze-bisita bat egingo ziotela enpresari MEM Energiarako eta Meatzaritzako Ministerioak, MARN Ingurumen eta Natur Baliabideen Ministerioak eta PDH Giza Eskubideen Prokuradoretzak. Hurrengo bileran jakin genuen MEMeko funtzionarioak bakarrik azaldu zirela eta ez ziotela abisatu ez MARNekoei ez PDHkoei, argudiaturik ohiko ikuskapen bat baino ez zutela egin. Ur kutsatuarena egiaztatzeko, esan ziguten erresistentzia kendu behar genuela, hau da, plantoa desegin. Horrek asko haserretu gintuen, eskubide konstituzional bat ukatzen ari zirelako eta beren betebeharra zelako.

Hori ikusita, tamainako errepresioa eta frustrazioa sufrituagatik, hizketan jarraitzeko prest egon ginen. Elkarrizketarako irekiak jarraitu dugu, hori baita modu bakarra irtenbideak aurkitzeko, baina alderdi bakoitzaren beharrak aseko dituen elkarrizketa izan behar du. Beharrezkoa da erabakiak hartuko dituzten funtzionarioak egotea; bestela, komunitateak higatzen dira, hainbeste bileratara etorri eta ezertxo ere ez lortuta. Oraingoz, ikusi dugu Guatemalako Gobernuak ez duela elkarrizketarako gaitasunik. Badaki erreprimitzen, kriminalizatzen, baina ez du gaitasunik izan elkarrizketarako, entzuteko eta irtenbideak alderdikeriarik gabe hartzeko, Giza Eskubideekiko dituzten konpromisoak nazioarteko estandarren arabera betetzeko.

Prozesu honetan elkarri laguntzen eta heldura egiten joan gara

La Puyan ikusi dugun gauza inportanteetako bat zera da, gu zapaltzeko erabili dituzten eta barneratu ditugun mekanismo guztiak, hala nola matxismoa, patriarkatua, arrazismoa, klase borroka eta gainerako zapalkuntzak, borroka daitezkeela horrelako espazioetan. Erresistentzia aukera ona da horrelako zapalketetan arrakalak eragiteko, ez baitu axola emakume naizenetz, maia naizenetz, akademikoa naizenetz edo dirurik dudanetz. Hemen, denak gaude arriskuan, eta hor, ikusten ari gara aniztasunetik ekarpenak egin ditzakegula helburu bakarrerako, hots, bizia. Oso bizipen interesgarria da La Puyakoa, ikustea nola gainditzen ditugun barneratuak genituen jardunbide oker horiek helburu bakar baten alde elkartuta. Eta elkarri begiratzen hasten gara, erdi behartuta edo, ikuspegi osagarriago batetik, geure ekintza askotarikoetatik. Geure baitan osagarri gisa elkar ikusten hasten bagara, jakintzaren, trebezien eta eskarmentuaren aniztasunarekin, horrek indarra sorrarazten du. La Puyako erresistentziak lortu du askotariko erakundeak, pertsonak, eta komunitateak elkarren artean hizketan jartzea, eta niretzat, garrantzi historikoa du horrek, horretan oinarrituta eraikitzen baita gainerakoa inguruan.

Mexiko

Babes-estrategiak parke eolikoak egin nahi dituzten testuinguru batean Tehuantepeceko Istmoan

Gizarte eta ingurumen gatazkak Mexikon
Iturria: *www.ejatlas.org* Ingurumen justizia Atlasa.
Mapak herrialdeko gizarte eta ingurumen gatazka batzuk bakarrik aurkezten ditu.

Istmoko haizea, energia-baliabide

Mexiko hegoaldean, Oaxacako estatuan, Tehuantepeceko Istmoa dago, mundu-mailan indar eolikoa erabiltzeko ahalmen handiena duen eskualdeetako bat; horregatik, oso erakargarria da energia sektoreko atzerriko enpresentzat, garapen bidean diren merkatuetan sartu nahi izaten baitute. Nahiko gauza berria da alderdi honetan baliabide eolikoak ustiatzea. Lehen parke eolikoa 1994an eraiki zen (La Venta I); proiektu pilotu gisa hasi zen, zazpi haize-sorgailurekin. 2000. urtean, Oaxacako Gobernuak nazioarte-mailako zenbait hitzaldi antolatu zituen, Ikerkuntza Elektrikoen Institutuarekin (IIE), zertarako eta entitate horrek energia eolikoaren arloan zeuzkan inbertsio-aukerak promozionatzeko eta Tehuantepeceko Istmoan Korridore Eoliko bat sortzeko. 2004. urtean, Ingurumen Globalerako Funtsak itzuli beharrik gabeko laguntza ekonomiko bat ematea onartu zuen Mexikorentzat, izenburu honen pean: Mexikon Sorkuntza Eolikoaren Garapenerako Trabak Kentzeko Ekintza Plana[34]. Esparru horretan, 2006. urtean, lehenengo lizitazioak eman zitzaizkien atzerriko enpresei zentral eolikoak eraikitzeko; bereziki, espainiar jatorrikoei. Gaur egun, 24 parke eoliko daude martxan Tehuantepeceko Istmoan[35].

Herri indigenen eskubideak Tehuantepeceko Istmoan

Oaxacako Estatuan, nabarmentzekoa da bertako aniztasun etnikoa eta kulturala; hemezortzi talde etniko daude, eta herritarren %60k baino gehiagok indigenatzat aitortzen du bere burua. Tehuantepeceko Istmoan, zapotecak, huaveak, mixtecak, txontalak eta zoqueak bizi dira. Zaragozako Juchitan udalerrian, hain zuzen, 53.226 lagunek hizkuntza indigenak hitz egiten dituzte[36]; hau da, udalerriko herritar guztiak kontuan hartuta, %57k. Herri indigenak direla eta, Mexikoko Gobernuak arduratu egin behar du herri indigenen eskubideak babesteaz eta sustatzeaz, hala aitortuta baitator bai barne-zuzenbidean bai Mexikok nazioartean berretsitako araudietan. Alabaina, kaltetuta gelditu dira libreki erabakitzeko eskubidea eta, beraz, erregimen politikoa libreki erabakitzeko eta garapen ekonomiko, sozial eta kultural propioa bilatzeko eskubidea, beren lurraldean eskala handiko proiektuak ezarri direlako. Oaxacako Estatuaren giza eskubideetarako diagnostikoak eta agenda estrategikoak dioenez, 2014an ez zitzaien galdetu herri zapotecei eta huaveei ea parke eolikoak nahi zituzten[37]; hala, Aldez Aurreko Kontsulta Libre eta Informaturako eta Onarpenerako eskubidea urratu zen; eskubide hori aitortuta dago Nazioarteko Lanaren Erakundeko herrialde independenteetako Herri Indigenen eta Tribuen 169. Hitzarmenean eta Nazio Batuek ateratako Herri Indigenen Eskubideen

34 *Oportunidades y retos para el desarrollo eoloeléctrico en México*. IIEren buletina. Energías Renovables Emergentes 2008ko apiril-ekaina, 32. lib.

35 *Capacidad Instalada de Energía Eólica en México 2015.*

36 Inegiren datuak, 2010: Hizkuntza indigena nazionala hitz egiten duen hiztun kopurua, 5 urtetik gora.

37 http://www.hchr.org.mx/images/doc_pub/09_Indigenas_oax.pdf (página 56).

La Ventako parke eolikoa, Tehuantepeceko Istmoan. Argazkia: PBI

Adierazpenean. Gabezia horrek gatazka sozial handiak eta bortizkeria-maila larriak eragin dizkie komunitateen defendatzaileei, zeinak etengabe jazarrita, mehatxatuta eta fisikoki erasota baitaude. Horrez gain, kontsultarik ez eginda, ez dira aintzat hartzen komunitate indigenek erabakiak hartzeko dituzten egitura tradizionalak, eta, hala, zilegitasuna kentzen zaie beren eskubideen defentsa kolektiborako ikuspegia sustatzen duten gobernu-organo propioei.

Lurraren eta ingurumenaren defendatzaileak arriskuan

Giza Eskubideen Defendatzaileen egoeraz arduratzen den Nazio Batuen Kontulari Bereziak zera nabarmendu du bere kontsultetan bildutako informaziotik: lurraren eta ingurumenaren «defendatzaileek era askotako zainketak, erasoak eta bortxazko desagertzeak jasan dituzte eta orobat ospea zikintzeko kanpainak, herrialdearen aurrerabidearen eta garapenaren kontrarioak direla zabaltzen baita». Eta honela gaineratu du: «Bortxaketak eta mehatxuak jasateko ingurune aproposa dago, estatuek ez dituztelako mekanismo lotesleak martxan jartzen enpresek urratzen dituzten giza eskubideak kondenatzeko».[38] Egiaztapen horiek defendatzaileentzat arrisku handiko joera globala dagoela erakusten dute, eta defendatzaile horiek komunitate-mailan egiten dute beren lana, baliabide naturalak ustiatzen dituzten proiektuen testuinguruan.

PBIko boluntarioa defendatzaile komunitario batekin, Bii lhoxo parke eolikoan.

Mexikon, 2014ko maiatzetik 2015eko ekainera bitartean, Ingurumen Eskubidearen Mexikoko Zentroak defendatzaileen aurkako 109 eraso-kasu erregistratu zituen herrialde osoan, eta Oaxaca izan zen eraso gehien izan zutenen artean bigarren estatua; hamahiru kasu gertatu ziren[39]. Gainera, erasotako zortzi biktimak zerikusia izan behar zuten megaporiektu eolikoak zalantzan jartzen dituzten ekintzekin. Era berean, Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Presako Ekintzak dioenez, «badira

38 *Kontulari Bereziaren txostena, giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruz,* 2015eko uztailaren 30a.

39 *Mexikoko ingurumen-defendatzaileen egoerari buruzko* 2015eko txostena.

zenbait erakunde etengabe erasoak jasan dituztenak gure txostenetan jasotzen diren hiru aldietan; esaterako, Juchitecoko Herri Batzordea».[40] Bortizkeria-ekintzen %7,5 dokumentatu dira horien aurka 2014ko ekainetik 2015eko maiatzera.

Tehuantepeceko Istmoan proiektu eolikoak eskala handian ezartzeko testuinguru horretan, bortizkeria-gertaerak izan dira, eta giza eskubideen urraketek igoera esanguratsua izan dute, hala nola komunitate-defendatzaileen aurkako mehatxuek, beldurrarazteek, jazarpenek, eraso fisikoek, zainketek eta hilketek. Mexikoko PBIk kezkaz ikusi du nola igo den arriskua testuinguru horretan eskualdean diharduten giza eskubideen defendatzaileentzat eta komunitateetako liderrentzat[41].

> «Nor zara? Karina naiz. Ez. Liliana naiz». Eta izen horrekin zenbait dei ditugu erregistratuta, batez ere kideei egindako mehatxuen ingurukoak. [...] Beti da zaila kideek mehatxuak jasotzen dituztenean, kontatzen dizutenean; izan ere, batzuetan oso zuzenak dira, eta beste batzuetan oso sotilak [...]. Ageri da gure lanak norbait aztoratu duela; baliteke gurekin oso eroso ez egotea zenbait agintari, zenbait enpresa eta zenbait interes-talde, eskualdean behatzen aritzen garelako eta ikusteko modukoak garelako».
>
> Sara Mendez:
> Codigo DH, *Tierra de Maíz* dokumentala, 2015eko uztaila42

Herri Batzarrak, babeserako komunitate-sareak

Parke eolikoen proiektuak ugaritzearekin batera, Tehuantepeceko Istmoko komunitate indigenak berreskuratzen hasi ziren beren egitura politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, alde batera autogobernurako era tradizionalak berreskuratuta eta beste alde batera herri indigenen eskubideen defentsan elkartu eta antolatuta. Horrela ezarri ziren, besteren artean, 2007an, Lurraren eta Lurraldearen Defentsarako Tehuantepeceko Istmoko Herri Indigenen Batzordea; 2011n, San Dionisio del Marreko Herri Batzordea; eta 2013an, Juchitecoko Herri Batzordea. Batzordeak artikulatuta, elkarrekin koordinatu ahal dira erresistentzia baketsurako ekintzetan, baina baita komunitatea babesteko sare gisa ere komunitate-defendatzaileen aurkako erasoak gertatzen badira.

2013ko apirilean, Mariano Lopez komunitate-defendatzailea, Juchitecoko Herri Batzordeko kidea (APPJ), atxilotu egin zuen Estatuaren Poliziak, estortsioa egotzita. APPJ negoziazio-mahai batera deitu bezperan gertatu zen hori, «Playa Vicenteko agentzian Gas Natural Fenosak Bii Hioxon parke eoliko bat eraikitzeak sorrarazi duen gatazka konpontzeko negoziazio-mahaira» hain zuzen.[43] Mahai horretan, zera

40 *Defender los derechos humanos en México: La represión política, una práctica generalizada* Informe Junio 2014-Mayo 2015.

41 http://www.pbi-mexico.org/fileadmin/user_files/projects/mexico/images/News/1403BriefingEolicosPBI.pdf

42 *Tierra de Maíz* dokumentala, bit.ly/TierraDelMaiz.

43 *AU por la libertad inmediata de Mariano López Gómez.*

PBI Mexikoko Oaxaca Taldeko boluntarioa, Indigenen Nazio Batzarraren baitan antolaturiko Biltzarren Topaketari so, Tehuantepeceko Istmoko Alvaro Obregonen, 2014. Argazkia: PBI

landu behar zuten, «proiektu eolikoa bertan behera uztea eta Totopo komunitate-irratiari kendutako transmisorea itzultzea». Atxilotzearen ondoren, Istmoko zenbait Batzordek idatzi bat hedatu zuten berehala, agintariei defendatzailea aska zezaten eskatzeko[44]. Mariano Lopez aske utzi zuten handik bi egunera, probarik ez zegoelako[45]. Ekintza horiek informazioa laster batean hedatzeko aukera ematen dute, eta agerian uzten dituzte landa-eremuetako eta urrutiko lekuetako oldarraldiak; horrela, gizarte zibilaren arreta bereganatzen dute, baina baita nazioarteko eragileena ere, horiek eskualdeko giza eskubideen egoera zaintzen baitute.

Batzordeek, era berean, balio dute maila lokalean informazio-trukerako sare bat iruteko, komunitateen edo bertako kideen kontrako erasoez edo arriskuez ohartarazteko. Horretaz gain, giza eskubideen inguruan ahalduntzeko eta gaitzeko espazioak dira; bertan, kideek ekintza-estrategiak osatu eta erabakitzen dituzte, baina autobabeserako jarraibideak ere ezartzen dituzte, konturatzen baitira defendatzaile-lanak zer-nolako arriskuak dakartzan.

44 *Comunicado urgente: detienen al compañero Mariano López Gómez.* APIIDTT, 2013/04/03.

45 *Defensor comunitario Mariano López Gómez libre!*. CODIGODH, 2013/04/04.

«

Sortu zirenetik, APPJko eta Totopo Irratiko zenbait kide, zeinak Gas Natural Fenosaren parkearen kontrako erresistentzian buru izan diren, etengabe mehatxatuak, erasoak eta beldurraraziak izan dira enpresa horri eta zenbait agintariri lotutako ekintzaileen bitartez. [...] [2013ko] uztailaren 21ean, zauri larriak egin zizkioten Juchitecoko Herri Batzordeko Hector Regalado Jimenezi, su-armekin, eta batzordearen aldeko beste bi herritarri ere bai. Erasotzaileak zibil jantzita eta armatuta zeuden; buruak estalita zituzten, eta Banku, Industria eta Merkataritzako Polizia Laguntzaileko kideak zituzten alboan. [2013ko] abuztuaren 1ean, Hector Regalado Jimenez hil egin zen, sei bala-tiroren ondorioz».

Rostros de la Impunidad
2. kapitulua46, Codigo DH, 2014ko martxoa

Giza eskubideen defendatzaileen sarea

Mexikoko defendatzaileek duten arriskua dela eta, sareak osatzen joan dira maila lokaletik hasi eta eskualde-ikuspegikoetaraino. Hau da haien jarduera nagusia: kasuak ikusaraztea eta hedatzea berehalako ekintzen eta komunikatuen bitartez, defendatzaileen kontrako erasoak dokumentatuz eta prestakuntza emanez. Era berean, gogoeta egiteko eta ideiak trukatzeko topaguneak dira; horrela, giza eskubideen egoeraren analisiak egiten dituzte, eta estrategia globalak pentsatzen dituzte.
Adibide modura, 172 emakume defendatzaile eta kazetari daude Mexikoko Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionalean (RNDDHM), Mexikoko zenbait estatutan banatuta. Emakume defendatzaile horiek informazio- eta analisi-trukerako sare bat osatzen dute, eta, giza eskubideen defendatzaile bati erasotzen badiote, erreakzionatzeko gaitasuna dute. RNDDHMk segurtasunaren ikusmolde integrala sustatzen du, eta hor sartzen da autozainketa, babes-tresna gisa, egonkortasun emozionala, psikologikoa eta espirituala lortzeko. Segurtasun eta Presako Ekintza izeneko lantaldean, arriskuaren eta babes-planaren analisiak egiten dira. Defendatzaileek edo haien familiek berehala irten beharreko emergentzia-kasuetan, Sareak aterpetxeetan edo harrera-espazioetan birkokatzen laguntzen du maila nazionalean zein eskualde-mailan[47].

2014ko irailean, Bettina Cruz, komunitate-defendatzaile zapotecarra eta RNDDHMko kidea, epaitegietara deitu zuten, askatasuna legez kanpo ukatzeagatik eta kontsumo eta aberastasun nazionalaren kontra egiteagatik. Gertaera horiek APIITDTTen manifestazio baketsu batean gertatu omen ziren, 2011n, Elektrizitatearen Batzorde Federalaren eraikinen aurrean, non protesta bat egiten ari ziren parke eolikoak instalatu behar zituztelako. Aipatu beharrekoa da bere abokatuaren arabera Bettina Cruz ez zegoela gertaera haiek izan ziren tokian, baina horregatik ez zen gelditu haren aukako auzibidea, eta 2012an, atxilotu egin

46 *Pueblos indígenas y megaproyectos en el Istmo de Tehuantepec. Txostenaren* 2. kap. «Rostros de la Impunidad en Oaxaca», CODIGO DH 2014ko martxoa.

47 http://im-defensoras.org/?page_id=128.

zuen Ministerioaren Polizia Federalak. 2014ko abuztuan epaiketari berriz ekin ziotenean, Babeserako Mekanismo Federalaren Kontseilu Aholku Emaileak esan zuen kezkatuta zegoela «Elektrizitatearen Batzorde Federalak zigor-sistema erabili zuelako adierazpen-askatasuna kriminalizatzeko eta pertsona orok giza eskubideak defenditzeko duen eskubidea murrizteko».[48] Horrez gain, RNDDHMk lagun egin zion Bettina Cruzi bere zigor-prozesuan, eta emakume defendatzaileen batzordean parte hartu zuen; batzorde horrek amicus curiae bat eman zion Barrutiko Seigarren Epaileari, 300 erakunde nazionalek eta nazioartekok izenpetua[49]. Dokumentuak zekarrenez, «ez zegoen behar bezalako elementurik delitua egiaztatutzat jotzeko eta giza eskubideen defendatzaileari zigor-ardura osoa emateko.

Juchitango kontsulta-prozesua behatzeko misioa

2014ko urrian, Mexikoko Gobernuko hiru mailetako entitateek kontsulta-prozesua abiarazi zuten energia sortzeko proiektu baten garapenari buruz; proiektu hori Energia Eolica del Sur izeneko enpresak proposatua zen (hemendik aurrera Eolica del Sur). Megaproiektu horretan, 5.332 hektareatan 132 haize-sorgailu eraikitzea zetorren, Juchitango eta Espinaleko udalerrietan. Zaragozako Juchitango herritarrentzako kontsulta horrek lau fase zituen: Akordioetarako Oinarrien Fasea, Informazio Fasea, Gogoeta Fasea eta Kontsulta Fasea. Hasieratik, Codigo DH, Prodesc eta Poder giza eskubideen aldeko erakundeek Behaketa Misio bat prestatu zuten. Misio horrek segimendua egingo zion kontsulta-prozesuari eta disuasio-estrategiarako balioko zuen, onartuta «inportantea dela giza eskubideen aldeko erakundeak bertan egotea parte-hartzaileen aurkako erasorik baldin bada kostu politikoa handiagoa izan dadin»; izan ere, «azken urteetan Tehuantepeceko Istmo osoan giza eskubideen defendatzaileen kontrako erasoak izan dira».[50] Horretaz gainera, Mexikoko gizarte zibila eta nazioarteko komunitatea kontsultari buruz informatzeko modua bilatuko zen, hartara nazioarteko estandarrak betetzeko. Hala, behintzat, Behaketa Misioak saio gehienak ikuskatu zituen, eta bost txosten argitaratu zituen; txosten horietan, prozeduraren irizpideekiko behatutako okerrak agertzen dira kontsulta librea, aldez aurrekoa, informatua, fede onekoa, kulturalki egokia eta gardena izatearen inguruan. Horren arabera, Behaketa Misioak zera ikusi zuen, aldez aurreko irizpidea ez zela bete, Energia Idazkaritzak baimena eman baitzion Eolica del Sur enpresari energia sortzeko[51], hau da, kontsulta-prozesua bukatu baino lehen. Agerian utzi zuen kontsulta librea ez zela bete, prozesuan

48 https://consejoconsultivomeca.wordpress.com/2014/10/01/carta-publica-del-consejo-consultivo-del-mecanismo-de-proteccion-a-defensoras-de-derechos-humanos-y-periodistas-sobre-la-situacion-juridica-de-la-defensora-de-derechos-humanos-bettina-cruz/

49 http://es.scribd.com/doc/241380831/140929-COMUNICADO-Entrega-Amicus-Bettina

50 http://www.prodesc.org.mx/wp-content/uploads/2014/11/Reporte-de-la-%E2%80%9CMisi%C3%B3n-de-Observaci%C3%B3n%E2%80%9D-de-la-primera-semana-de-sesiones-de-la-de-la-Consulta-para-la-implementaci%C3%B3n-de-un-proyecto-E%C3%B3lico-en-Juchit%C3%A1n-Oaxaca.pdf

51 http://www.cre.gob.mx/documento/resolucion/RES-006-2015.pdf

PBI Mexikoko Oaxaca Taldeko boluntarioa, Indigenen Nazio Batzarraren baitan antolaturiko Biltzarren Topaketari so, Tehuantepeceko Istmoko Alvaro Obregonen, 2014. Argazkia: PBI

komunitateko kideen kontrako 30 eraso behintzat erregistratu zirelako. Gertaera gehienak parke eolikoaren kontra iritzia adierazi zutenei egin zizkieten, eta, kasu batean, behintzat, gobernuko funtzionario bat mehatxatu egin zuten[52]. Gorabehera horiek kenduta, kontsultak bere bidea egin zuen, eta 2015eko uztailaren 30ean, kontsulta- eta bozketa-fasea izan zen, eta komunitateko herritarren parte-hartzea %0,5ekoa baino txikiagoa izan zen[53]. Alde horretatik, 2015eko irailaren 15ean, Tehuantepeceko Istmoko 1.166 zapotecarrek babes-helegitea jarri zuten Oaxacako Estatuaren Barrutiko Zazpigarren Epaitegian, «federazioko, estatuko eta udalerrietako agintariek urratu dituzten eskubideak babesteko, onartu egin baitute Eolica del Sur enpresak energia-megaproiektua eraikitzea eta martxan jartzea»[54]. Helegitea epaile federalak onartu zuen, «zeinak etete-agindua eman baitzuen, eta, hala, indargabe utzi zituen lurraren erabilera enpresa eolikoaren alde aldatzeko baimenak». Tepeyac Giza Eskubideen Zentroaren arabera, horrek esan nahi du

52 http://projectpoder.org/wp-content/uploads/2015/02/Segundo-Reporte-de-la-Misi%C3%B3n-de-Observaci%C3%B3n-sobre-la-Consulta-para-la-implementaci%C3%B3n-de-un-proyecto-E%C3%B3lico-en-Juchit%C3%A1n-Oaxaca.pdf

53 http://www.prodesc.org.mx/wp-content/uploads/2015/09/Quinto-Reporte-de-la-Misi%C3%B3n-de-Observaci%C3%B3n-sobre-el-proceso-de-Consulta-Ind%C3%ADgena-en-Juchit%C3%A1n-agosto-de-2015.pdf

54 http://imparcialoaxaca.mx/istmo/6by/logran-amparo-para-evitar-construcci%C3%B3n-de-parque-e%C3%B3lico-en-juchit%C3%A1n



Herri indigenek egitasmo eolikoei paratu erresistentzia goratzen duen manta. Argazkia: PBI Honduras. Lur eta ingurumen eskubideen defentsa arrisku handiko jarduera da.

proiektua etenda gelditzen dela legezko prozedurak iraun bitartean eta epaileak sententzia jo bitartean.[55] [56]

> «Gure lurraldea kendu nahi digutenen aurka gaudenok aurre egin behar diegu telefono-bidezko mehatxuei, irainei, kontsulta-foroko mehatxu publikoei, kideen eta senideen kontrako eraso fisikoei, bahiketa-saioei, plakarik gabeko auto blindatuen eta kamioneten bidez egindako jazarpenei, ospe-zikintzeei, oldarraldiei eta kideen etxe-kanpoaldean airera botatako tiroei».
>
> Isabel Jimenez, Zapotecar Komunitate Defendatzailea, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanoaren 156. saioan, 2015eko urrian[57]

55 https://oaxaca.quadratin.com.mx/Aprueban-suspension-definitiva-a-proyecto-eolico-en-el-Istmo/

56 Protocolo para la implementación del proceso de consulta libre, previa e informada sobre el desarrollo de un proyecto de energía eólica.

57 https://www.youtube.com/watch?v=k5qQwQj_R4E (min 15:35).

Honduras

Lurra izateko eta ingurumenerako eskubidearen defentsa arrisku larrian Hondurasen

Gizarte eta ingurumen gatazkak Hondurasen
Iturria: *www.ejatlas.org* Ingurumen justizia Atlasa.
Mapak herrialdeko gizarte eta ingurumen gatazka batzuk bakarrik aurkezten ditu.

2002 ETA 2014 ARTEAN, 111 ingurumen-defendatzaile hil zituzten Hondurasen; horietako hamabi 2014. urtean. Mundu osoan ez dute herrialde honetan beste defendatzaile hil biztanleko, Global Witness nazioarteko erakundearen urteroko txostenaren arabera.[58] Hondurasko Estatuak, berriz, ez zion jakinarazi CIDH Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordeari zer-nolako neurriak hartuko zituen herri indigenetako liderren eta defendatzaileen kontrako hilketak eta indarkeria-ekintzak prebenitzeko. Aguan Behereko kasua, adibidez, Erdialdeko Amerikako nekazaritza-gatazkarik odoltsuenetakotzat hartzen dute.

Antonio Trejo Cabrera abokatu jardun zen Aguaneko Nekazarien Egiazko Mugimendu Aldarrikatzailean, eta zenbait nekazari-kooperatiba ordezkatu zituen Aguan Behereko zenbait liskar legaletan lurjabe boteretsuen aurka. Kasu ezagun batean parte hartu zuen, 2012ko ekainean amaitu zena; kasu hartan, erabaki zen Miguel Facusse eta Rene Morales enpresariek legez kanpo erosi zituztela zenbait lursail. Erabaki horren ondorioz, lurrak Nekazarien Mugimenduari itzultzeko agindu zen; guztira, 1.776 hektarea. 2012ko irailaren 22an, Antonio Trejo tiroz hil zuten Toncontin aireportu inguruan zela, Tegucigalpan. Gaur egun, inork ez du zigorrik jaso oraindik hilketa hargatik. [59]

Margarita Murillo,[60] nekazari mugimenduaren defendatzailea eta buruetako bat, 2014ko abuztuan hil zuten, bere lurretan lanean ari zela. Bizitza osoa borrokatu zen nekazarien eskubideen alde; horregatik, errepresioaren, bortizkeriaren eta tortura etengabeen biktima izan zen. Haren senarra tiroz zauritu zuten, nekazarien kontrako ekintza militar batean, zeinak protestan ari ziren Cholomako herrian lurra eskuratzearen alde. 2014an, haren semea bahitu zuen militar talde batek. Erresalbuzko neurriak eman zizkion Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordeak 2009ko estatu-kolpearen ondoren, baina ez zizkioten aplikatu. Egundaino, inork ez du zigorrik jaso hilketa hargatik. Kasua zeramaten bi fiskalak eta ustezko bi ekintzaileak ere hil egin zituzten.

Juan Francisco Martinez. 2015eko urtarrilaren 5ean, hilda aurkitu zuten, tortura zantzuak zituela. Juan Francisco pertsona aktiboa zen mugimenduaren barnean. Bakearen Lenca Mugimendu Indigenako kideek (MILPAH) salatu dute haren heriotzak zerikusia izan dezakeela lurren gainean Cafetalerosko Zentraleko talde batekin duen gatazkarekin; Santa Elenako alkateak babesten du talde hori, Victor Venturak.[61] Alkate horrek behin baino gehiagotan esan du ez duela bat egiten

58 *¿Cuántos más?:* Global Witness, 2015eko apirila.

59 *APRODEV, CDM Watch, CIFCA, FESPAD, FIAN, LAWG, OMCT-FIDH, PIDHDD, Rel-UITA, Sisters of Mercy eta Via Campesina.* Nazioarteko komunikatua: «Organizaciones internacionales condenan el asesinato de abogado defensor de derechos humanos de campesinos y campesinas del Bajo Aguán y de fiscal especial para los DDHH», 2012ko urria.

60 Hondurasko PBI: *Boletín 2*, 2015 y Plataforma Agraria, et alií, *Margarita Murillo, No a la Impunidad, 1958-2014*, 2015.

61 *«Honduras – Asesinato y tortura del defensor de derechos humanos Juan Francisco Martínez»,* Front Line Defenders, 2015eko urtarrilaren 16a.

Genero indarkeriaren aurkako Ni Encerradas Ni con Miedo martxaren behaketa El Progreson, Yoroko Departamenduan, 2014ko abuztuak 29. Martxa honetan, Margarita Murillo hainbat alditan omendu zuten. Argazkia: PBI

MILPAHren ekintzekin; hain zuzen, Los Encinos SA-ren urtegia eraikitzearen aurka dago mugimendua.

2015eko ekainaren 1ean, **Silvestre Manuelesen** hilketa ere salatu zuten Fiskaltzan; Santa Elenako udalerriko komunitate bateko kidea zen, eta hilik agertu zen, hilabete lehenago, Chinacla ibaian.[62] Horretaz gain, eskualdera egindako bisitetan, PBIk beste bi desagertzeren inguruko informazioa jaso du.

Erresistentzia komunitarioaren kriminalizazio eta estigmatizazioa

Vía Campesinaren estatistiken arabera, 2015. urtearen erdialdera, Hondurasko 5.000 nekazari baino gehiago zeuden kartzelen ordezko neurriekin; horietatik 815 emakumeak; alabaina, estatuko kartzela desberdinetan dauden 11ri askatasuna ukatzen zaie.[63] Hondurasko Landa Langileen Zentralak jakinarazi du gaur egun La

62 «Denuncia en la Fiscalía de las Etnias el brutal asesinato de indígena en las riberas del Río Chinacla», CEHPRODEC, 2015eko ekainaren 8a.

63 *Campesinos exigen liberación de quienes luchan por la tierra,* Defensores en Linea, 2015eko apirila.

Paz departamenduan bakarrik 612 nekazari prozesatuetatik erresalbuzko neurriak dituzten 161 emakume daudela eta astero agertu behar dutela epaitegietara sinatzera. Horietako asko ama ezkongabeak dira; batzuk adin handikoak dira, eta beste batzuk haurdun zeudela edo ume adingabeak eta besoko umeak zituztela kartzelatu zituzten. Ez dira kasu bakanak, herrialde osoan ikuskatu baitira horrelakoak.

2015eko uztailaren 17an, La Paz departamenduko Planesko komunitatean (Santa Marian), komunitate horretako hogei defendatzaile, zeinak lurra izateko eta jateko eskubidea aldarrikatzen ari ziren, atxilotu egin zituzten. Lau adingabe eta bost emakume zeuden; horietako zenbait adin handikoak ziren, eta bazen emakume haurdun bat ere, gero abortua izan zuena 22 egunez baldintza txarretan atxilo egon ondotik. Horietako hiru oraindik kartzelan daude.

Berta Caceres (ingurumenaren aldeko 2015eko Goldman Saria irabazia) defendatzaile indigena lenca da, eta Hondurasko Herri Erakundeen eta Indigenen Kontseiluko koordinatzaile nagusia. Lenca herriaren antolakuntzako buru izan da, Hondurasko etnia indigenarik handienarena, bere lurraldea Gualcarque ibaiko Agua Zarca urtegitik defendatzeko; komunitatean aldez aurreko kontsulta egiteko eskubidea eskatzen du Nazioarteko Lanaren Erakundeko 169. Hitzarmenean oinarrituta, eta herriaren antzinako lurraldea errespetatzeko.
Bere lana dela eta, heriotza-mehatxuak jaso ditu maiz, eta estatuaren kriminalizazioa jasan zuen 2013ko maiatzean, akusatua izan baitzen zergatik eta «*legez kanpo su-armak izateagatik eta Hondurasko Estatuaren segurtasuna arriskuan jartzeagatik*». Kasua ezetsia gelditu zen. CIDHen erresalbuzko neurrien onuraduna da 2009tik,64 baina ez dizkiote behar bezala aplikatu.

Agua Zarca: 2013ko uztailaren 15ean, armada tiroka hasi zen Blanco ibaiko (Santa Barbarako departamendua) lenca komunitate indigenako manifestariei. Hiru tiroz nekazarien liderra hil eta haren semea larri zauritu zuen. Txostenen arabera, manifestazioa baketsua zen, eta poliziaren eta armadaren begiradapean gertatzen ari zen. Komunitate indigenak beren aurkakotasuna agertzen ari ziren, menderen mende bizi izan diren lurretan Agua Zarca proiektu hidroelektrikoa ezarri baitute haiei aldez aurreko kontsultarik egin gabe.[65]

Jose Isabel Morales, Chabelo esaten diotena, Guadalupe Carney komunitateko kidea da, Aguan Beherean, eta MCA Aguaneko Nekazarien Mugimendukoa. Atxilotua izan aurretik, lurra lantzen zuen, izozkiak saltzen zituen eta futbolean aritzen zen. 2008ko urriaren 17an atxilotu zuten, hamar pertsona hil zituelakoan, nor

64 MC 196/09 - Ampliación de Medidas Cautelares, Honduras.

65 *Acción Urgente: El ejército dispara contra manifestantes en Honduras,* Amnesty International, 2014ko uztailaren 23a 2014.

Hirugarren epaiketa 2015eko irailean zen hastekoa, baina akusazioa epearen barruan aurkeztu etzelarik, epaileek Chabelo errugabetzea erabaki zuten froga faltagatik. 2015eko urriak 21, Trujillo, Colongo Departamendua.
Argazkia: Gre McCain

eta Poliziako Henry Osorto goi ofizialaren familiakoak eta langileak. Ia zazpi urtez egon zen preso, eta azkenik 2015eko urrian absolbitu zuten. Preso zela, hiru urteko alaba, aita eta aitona hil zitzaizkion.

> *Nire bizitzako zazpi urte galdu nituen; aurpegiaren zati bat ere galdu nuen, baita hitz egiteko modua ere [badira zenbait hitz arin ahoska ez ditzakeenak], hortzak galdu nituen, ezpainak moztu nituen, berebat mingaina, ikusmenaren parte bat galdu nuen, eta sudurraren zati bat ebaki nuen».*[66]

Guadalupe Carney komunitatea. Komunitate hori orain dagoen lurretan ezarri aurretik, Entrenamendu Militarreko Eskualde Zentrorako (CREM) erabiltzen ziren eremu horiek; 80ko hamarkadan, Hondurasko Indar Armatuek erabiltzen zituzten El Salvadorko eta Nikaraguako armadak entrenatzeko, zeinak barne-gatazka armatuetan murgilduta zeuden eta Pentagonoarekin eta AEBetako Estatu Departamenduarekin zuzenean koordinatuta zeuden.[67] Estatuaren lur horiek 5.724 hektarea dira, eta Aguan Beherean daude. 1993an, CREM itxi zuten, eta Estatuak eskura utzi zituen lur haiek Hondurasko Nekazaritza Institutuaren bitartez, Nekazari Erreforma aplikatu zuenean. 2000. urteko maiatzaren 14an, Estatuak lurren parte bat eman zien MCAn elkartuta zeuden 700 nekazari-familiari, eta egun horretan bertan eratu zuten komunitatea.

66 *«Chabelo Morales: perdí siete años de mi vida en prisión, por un crimen que no cometí»,* Adital, 2015eko irailaren 4a.
67 *«Por fin libre Chabelo»,* Defensores en Linea, 2015eko urriaren 21a.

Rio Blancon behaketa, La Tejerako lenka komunitateak Agua Zarcako egitasmo hidroelektrikoaren aurka egin plantoaren lehen urteurrenean. Argazkia: PBI

Nekazari-erresistentziaren babes-esparrua

Pertsona-talde honek zer-nolako arrisku espezifikori egin behar dion aurre aztertuta, konturatzen gara babes-estrategiek askotariko erantzunak iragarri behar lituzkeela eta bakoitzak bere ikuspegi berezia eduki behar lukeela. Nazioarteko araudiak luze-zabal aitortzen du Estatuek obligazioa dutela giza eskubideen urraketak prebenitzeko eta behar diren neurri guztiak hartzeko urraketa horiek konpon daitezen eta defendatzaileak babestuta egon daitezen.[68] Mekanismo bat baino gehiago dago nazioarte- eta herrialde-mailan, baita defendatzaileak babesteko jarraibide asko ere.[69] Azken urteetan, babes-betebehar espezifiko horiek betetzeko tresnak sustatu dira.

2015eko maiatzean, Hondurasen, giza eskubideen defendatzaileak, kazetariak, gizarte-komunikatzaileak eta justizia-operadoreak babesteko Legea onartu zen[70]. Aurrerapauso handia izan da defendatzaileak babesteaz arduratzen diren estatuko entitateak artikulatzeko eta babesteko; izan ere, horrela Babes Sistema Nazionala

68 *Declaración sobre el derecho y el deber de los individuos, los grupos y las instituciones y proteger los derechos humanos y las libertades fundamentales universalmente reconocidos,* 12. artikulua NBE, 1998.

69 Nazio Batuetako giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko Kontalaritza berezia (2001etik), Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordearekin Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Kontalaritza (2011tik), Suitzako jarraibideak giza eskubideen defendatzaileak babesteari buruz (2013), Europar Batasunaren jarraibideak giza eskubideen defendatzaileei buruz (2004 eta berrikusiak 2009an), Norvegiako jarraibideak Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko (2010).

70 Giza eskubideen, kazetarien, gizarte-komunikatzaileen eta justizia-operadoreen defendatzaileak babesteari buruzko Legea, 34-2015 Dekretua, 2015eko maiatzaren 15a.

Cehprodec erakundeari lagun egitea Santa Elenan, bertan lau egun lehenago erailda aurkitu zuten Juan Francisco Martinez Milpah erakundeko kidearen hiletan, 2015eko urtarrilak 8. Argazkia: PBI

eta babes Kontseilu Nazionala sortu dira, kontsulta, gogoeta- eta aholkularitza-organo gisa jokatzeko eta, hala, Legea bermatzeko. Hala ere, gizarte zibilaren erakundeek kezkak adierazi zizkioten PBIri Babes Kontseilu Nazionalaren barnean Segurtasun Idazkaritza zegoelako; izanez ere, herrialdean giza eskubideen urraketa asko indar publikoetako kideek egin izan dituzte.

Bada kezka-iturri berezi bat giza eskubideen emakume defendatzaileentzat: Legea aplikatzeko araudiak kontuan har ditzakeen irizpideen artean, egon daiteke bereizkuntzak dakartzan ikuspegia, hala nola genero-irizpideak, kulturartekotasuna eta testuingurua[71]. Alde horretatik, PBIk elkarrizketatutako zenbait pertsonak nabarmendu zuten garrantzitsua zela babes-sistema nazionalaren barnean dauden funtzionarioak heztea eskubide ekonomikoetan, sozialetan eta kulturaletan, eta

71 *«COFADEH socializa la Ley de defensores de derechos humanos, plantea retos y desafíos»,* Defensores en Línea, 2015eko abuztuaren 29a.

proposatu zuten batzorde espezifiko bat sortzea Babeserako Kontseilu Nazionalean. Azkenik, Hondurasen giza eskubideen defentsan ari diren pertsonen zaurgarritasun berezia aitortuta, inportantea izango da segimendua egitea babes-lege berriaren araudiari eta babesaren arloko ekarpenei. Horretaz gainera, PBIk uste du oso inportantea dela babes-neurriak prestatzeko orduan ikuspegi integrala hartzea, eta ez gelditzea babes fisiko hutsean. Gainera, neurri horiek kontuan hartu behar dituzte babes kolektiboa, eta instituzionala eta indarkeria estrukturalari aurre egin beharko diote; lagun-egite psikosozialerako neurriak ere hartu beharko dira, besteak beste autobabeserako neurriak eta segurtasun digitalekoak hartzearekin bat[72].

72 Amnesty International, 2014, ibid. eta AWID, 2014ko martxoa, Ibid.

Lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren emakume defendatzaileak

AZKEN HAMARKADETAN, zenbait mekanismo ezarri dira nazioarte-mailan, mundu guztiko emakumeek jasaten duten biolentzia-egoera larriari aurre egiteko. Hala ere, gaur egungo babes-mekanismo hauek badute ahuleziarik: ez dira egokitzen giza eskubideen emakume defendatzaileek lekuan-lekuan betetzen dituzten rol askotarikoetara, dela beren lantokietan, familietan, erakundeetan eta mugimenduetan eta dela beren komunitateetan.[72]

Inbertsio handien testuinguruan aritzen diren emakume defendatzaileek kolpe handiak jasaten dituzte beren bizimoduan; askotan, liderren zereginak bete behar dituzte bere lurrak eta lurraldeak defendatzeko, eta ikusgarriago bihurtzen dira, eta, beraz, arrisku handiagoan jartzen dira.[73]

Beren kideko gizonen arrisku berberez gain, generoaren arrisku espezifikoei ere egin behar diete aurre, eta horrek eragin gehigarria sorrarazten die nola beren bizitzetan hala beren lanean: jazarpena, ospea zikintzeko kanpainak, eraso fisikoak eta hitzezkoak, heriotza edo sexu-indarkeria mehatxuak, bortxaz kanporatzeko saioak eta kriminalizazioa; orobat beren familien kontrako erasoak eta oldarraldiak ere jasan behar izan dituzte beren lurrak, lurraldea eta ingurumena defendatzen aritzen diren defendatzaileek.[74]

Giza Eskubideen Erdialdeko Amerikako Defendatzaileen Kontrako Erasoen Erregistroak dakarrenez, 2012 eta 2014 bitartean, lurraren, lurraldearen eta baliabide naturalen emakume defendatzaileek jasan zituzten erasorik gehienak. 525 gertakari sufritu zituzten; hau da, eraso guztiak kontuan hartuta (1.688), %31. 525 erasoetatik, %54 (284 eraso) gertakari sail baten parte dira, hau da, erasoen patroi sistematiko baten parte, eta ez dira ekintza bakartuak. Beste datu esanguratsu bat zera da, lurraren, lurraldearen eta baliabide naturalen emakume defendatzaileen kontrako erasoen %14 (76 kasu), genero-ezaugarriren bat izan zuten. 2012tik 2014ra bitarteko erregistro horrek berak dakarrenez, hil egin zituzten lurraren, lurraldearen eta baliabide naturalen emakume defendatzaileetako zazpi.

Emakume Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimenak 2012-2014 bitartean dakarrenez, kontuan hartuta Guatemalan eta Hondurasen herrialde bakoitzean pilatutako erasoak eraso gehien jasaten dituzten emakume defendatzaileek lurraldea eta baliabide naturalak defendatzen dituztenak dira (%40 eta %51 hurrenez hurren). [75]

Mexikon, Genero Berdintasunerako eta Elkarrizketa Parlamentariorako

72 *Nuestro Derecho a la Seguridad: La Protección Integral desde la mirada de las Mujeres Defensoras de Derechos Humanos.* Giza Eskubideen Emakume Defendatzailen Nazioarteko Koalizioa, 2014.

73 *El rol de las empresas y los Estados en las violaciones contra los defensores y las defensoras de los derechos de la tierra, el territorio y el ambiente ISHR,* 2015.

74 Ibid.

75 Agresiones contra defensoras de derechos humanos en mesoamérica informe 2012-2014.

Partzuergoak 51 emakumeri egindako 185 eraso erregistratu zituen Oaxacako Estatuan 2015ean (azaroaren 15era bitartean); horietatik 44 defendatzaileak dira eta zazpi komunikatzaileak eta kazetariak. Eraso gehien lurraren, lurraldearen eta baliabide naturalen eskubideen alde diharduten emakume defendatzaileek jasan zituzten; erregistratutako erasoen %27 izan ziren.[76]

Hona hemen zenbait gogoeta, erakusten dutenak, eta gure ustez ohikoenak direnak haien kontrako edozein indarkeria-testuingurutan, emakume horiek nolako kolpe psikosoziala jasaten duten.

Emakumeen kontrako indarkeriaren eragin psikosozialen adibideak	
Indarkeria mota	**Eragin psikosoziala**
— Sexu-indarkeria — Hilketak — Desplazatze behartua — Desagertze behartua — Pertsonaren, familiaren eta beren gorputzaren kontrako mehatxuak — Estigmatizazioa — Legez kanpoko talde armatuek senideen kooptazioa egitea — Estortsioa	— Egoera traumatikoak: Beldurra, larridura, izua, ikara: Emozio gisa zein esperientzia gisa hala banakoarena nola maila kolektiboan eta gizartean[78] — Erresistentzia-motak desartikulatzea — Gizonak emakumearen gorputza mendean hartzea eta hori beste gizon batzuk «zigortzeko» erabiltzea (senarrak, semeak, aitak, anaiak) — Biktimei lotzen zaien estigma morala, indarkeria motaren bat justifikatzeko[79] — Familiaren nukleoa berregituratzea. Emakume alargunak, familiaburuak, rol-aldaketak edo seme-alaben baten galera. — Lan- eta emozio-gainkarga familia berregituratzeko orduan eta rol-aldaketak jasateko orduan, desplazamenduan...

76 http://consorciooaxaca.org.mx/informe-defensoras-de-derechos-humanos-en-la-mira-desafios-para-su-proteccion-integral-en-oaxaca/

78 E Lira: *Psicología del Miedo,* 1987ko azaroa.

79 Carlos Beristain: *Manual sobre la perspectiva psicosocial*, 2010.

Resistencia Pacífica de La Puya ekimeneko kidea. Argazkia: PBI

Ondorioak eta gomendioak

GIZA ESKUBIDEEN errespetuan aurrera egiteko ahaleginak ikus daitezke, eta jardunbide onen ekintza bakan batzuk ari dira gertatzen zeinak hobekuntza kualitatiboa ekarri duten emakume defendatzaile erasanen segurtasunean, baina PBIk oraindik ikusten du egiteko asko dagoela giza eskubideen aldeko defentsan eta babesean inbertsio handien testuinguruan, eta, horretarako, ekintza irmoa eta sistematikoa behar da Estatuen eta erakunde multilateralen aldetik.

Nazioarteko komunitateak zenbait tratatu eta mekanismo ditu Estatuak behartzeko giza eskubideak beren jarduera eta harreman guztien erdigunean jartzera, baita beren jarduera komertzialetan eta kanpo-inbertsioetan ere. Horrez gain, tresna ugari ditu giza eskubideak eta horien defendatzaileak sustatu eta babesteko. Tresna horiek aplikatzeko modukoak dira giza eskubideak arriskuan jartzen dituzten enpresen eta inbertsio-proiektuen kasuan. PBIren eskarmentuaren arabera, bereziki garrantzitsuak eta baliagarriak dira arlo horretan:

- Norbanakoek, taldeek eta erakundeek unibertsalki aitortutako giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatzeari eta babesteari buruzko adierazpena (Declaración sobre el derecho y el deber de los individuos, los grupos y las instituciones de promover y proteger los derechos humanos y las libertades fundamentales universalmente reconocidos) (NBE, 1998)
- EBren jarraibideak Giza Eskubideen defendatzaileentzat (Directrices de la UE para los Defensores de Derechos Humanos) (EB, 2004)
- Giza Eskubideen eta Demokraziaren Esparru Estrategikoa (Marco Estratégico de Derechos Humanos y Democracia) (EB, 2011)
- Giza Eskubideetarako eta Demokraziarako Ekintza Plana (Plan de Acción para los Derechos humanos y Democracia) (EB, 2015-2019)
- Enpresei eta giza eskubideei buruzko Printzipio Gidariak (Principios Rectores sobre las empresas y los derechos humanos) (NBE, 2011)
- Herrialde eta herri kolonialei independentzia emateari buruzko Hitzarmena (Convenio No. 169 sobre Pueblos Indígenas y Tribales en Países Independientes) (OIT, 1989)
- Herri indigenen eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena (Declaración de la ONU sobre los derechos de los Pueblos Indígenas) (NBE, 2007)
- «Eskubide Zibil eta Politikoen» eta «Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen» Nazioarteko Itunak (Pactos Internacionales de «Derechos Civiles y Políticos» y de «Derechos Económicos, Sociales y Culturales») (ONU, 1966)
- Erdialdeko Amerikarekiko Kooperazio Akordioa eta EB-Mexiko Akordio Globala (El Acuerdo de Cooperación con América Central y el Acuerdo Global UE-México)
- EBren eta Kolonbia eta Peruren arteko Merkataritza Librerako Ituna (El Tratado de Libre Comercio entre la UE y Colombia y Perú)

Adierazitako egoeretan, PBIk hauxe eskatzen dio Europar Batasunari:

- Era prebentiboan EBk giza eskubideen defendatzaileentzat dituen jarraibide-mekanismo askotarikoak aktibatzea Europatik datozen inbertsioak egitea iragarrita dagoen eskualdeetan eta komunitateetan, hala nola defendatzaileak nola dauden ikusteko bisitak proiektuek eta inbertsioek erasandako alderdietan eta komunitateetan; bereziki, landa-eremuetan edo leku bakartuetan daudenak.
- Aldez aurreko kontsulta-prozesuak babestea eta behatzea nazioarteko goi-mailako estandarren arabera, kontuan harturik halaber komunitate indigenek eta nekazariek berek bultzatutako kontsulta-ekimenak ere.
- Defendatzaileen lan garrantzitsua jendaurrean aitortzea, adierazpenen, sarien eta lantokietara egindako bisiten bitartez, Ordezkaritzen mahai-inguruetara gonbidatuta, kasu espezifikoak agerian jarrita... Era berean, zaintzea hirugarren herrialdeko agintari publikoek ez dutela adierazpenik eta akusaziorik egingo komunitateen, erakundeen eta giza eskubideen defendatzaileen kontra.
- Hirugarren herrialdeetan neurriak hartzea defendatzaileen funtsezko eskubideak eta askatasunak osoki babesteko eta laguntzeko (besteren artean, adierazpen eta elkartze askerako eskubidea, eskubide sindikalak eta protesta baketsurako eskubidea). Estatuek babestu egin behar dituzte gizarte zibileko erakundeak eta giza eskubideen defendatzaileak beren lanarekin zerikusia duten oldarraldietatik, jazarpenetatik eta errepresalietatik inbertsio handien testuinguruan.
- Europako enpresek giza eskubideak errespetatuz dihardutela zaintzea eta ez hastea proiekturik aurretik bertako komunitateei galdetu eta haien onarpen librea, aldez aurrekoa eta informatua lortu gabe.
- Ziurtatzea inbertsioak egin nahi dituzten herrialdeetan babes-sistema efektiboak eta komunitateekin hitzartuak egongo direla, ez direla lurrak legez kanpo hartuko eta ez dela desplazatze beharturik egingo eta ez dela horrelakorik berriz errepikatuko. Babes-sistema horiek komunitateek eraiki beharko dituzte, kontuan harturik, besteak beste, genero-, etnia- eta nortasun kulturaleko faktoreak.
- Giza eskubideen defendatzaileen arloan, EBren Ordezkaritzek eta Estatu kideen enbaxadek ateratako txosten guztietan genero-ikuspegia kontuan hartzea; esaterako, aipatuta emakume defendatzaileetara egokitutako neurriak ezartzeko beharra, haien arrisku espezifikoa eta haien kontrako erasoen eragin gehigarria.

Estatuentzako gomendioak:

- Ekintza Nazionalerako Planak Diseinatzea enpresen eta giza eskubideen inguruan, osoki integratuta Nazio Batuen Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidariak eta defendatzaileen babes- eta aitorpen-esparru integral bat prestatuta. Horrelako planek honako hau ekartzea: egiazko kontsulta zabal bat, gizarte zibileko sektore askotarikoei egina.
- Ekintza Nazionalerako Planen ezarpen efektiboa bermatzea eta epe erdira giza eskubideetan izango duen eragina ebaluatzea, proiektuak gauzatzen ari diren herrialdeetako defendatzaileen parte-hartzearekin.
- Enpresei eskatzea giza eskubideetan izango duen eraginaren ebaluazioa, proiektua hirugarren herrialde batean garatu baino lehen, eta ebaluazioa argitaratu eta behar bezala hedatzea. Ebaluazio horrek sakona, gardena eta independentea izan behar luke, eta komunitate erasanen eta giza eskubideen defendatzaileen parte-hartzea eduki behar luke.
- Enbaxadek maiz bisitatzea horrelako proiektuak dituzten eskualdeak, jakiteko nola daude giza eskubideen defendatzaileak; bereziki, landa-eremuetan eta eremu bakartuetan.
- Enpresa transnazionalei jakinaraztea giza eskubideen defendatzaileak nor diren, eta horien funtsezko eskubideak eta askatasunak errespetaraztea.
- Adar politiko askotarikoen arteko koherentzia bermatzea; bereziki, inbertsio- eta komertzio-politika, giza eskubideak errespetatuta eta sustatuta eta defendatzaileak babesteko politika bat martxan jarrita.
- Eztabaidetan era aktiboan parte hartzea Nazio Batuek bultzatutako ekimenaren inguruan, hots, enpresen eta giza eskubideen gaineko nazioarteko tresna lotesle bat sortzearen inguruan.
- Herri eta komunitate indigenen eta nekazarien kontsultarako eta onarpen libre, aldez aurreko eta informaturako eskubideak betetzen direla errespetatzea eta zaintzea, lurra eta ondasun naturalak ustiatzeko proiektuek erasanda dauden lekuetan.
- Genero- eta etnizitate-ikuspegia sustatzea gobernuen babes-mekanismoetan, talde zaurgarri honetan dauden arrisku eta eragin gehigarrien espezifikotasunagatik.

Brigadas
Internacionales
de Paz

Ezagutzen ez den eskubidea
babesik gabeko eskubidea da.

Babestu gabeko eskubidea
galdutako eskubidea da.

EEko PBIren bulegoa:
C/ Gral. Dávila 242 B, 4º B / 39006 Santander
Telf: +34 942071096 / 659630355
admin@pbi-ee.org

Gertakarien arduraduna EEko PBIn
advocacy@pbi-ee.org
Telf: 608864012

www.pbi-ee.org
www.facebook.es/pbi.ee